



Agur, eskerrik asko

Altsasuko auzian fase bat itxi dute bertako protagonistek / 6-7

@ALTSASUGURASOAK

Alokatzeko apartamentuak

Unanuko Kontzejuak bere eraikin batean alokairura bideratutako bi apartamentu prestatuko ditu aurtten / 9

Arbizun ariketa fisikoa sustatzeko gimnasia parkea, teknikaria eta paseoak / 11

Kamioiendako lehen bidesaria A-1 autobian jarriko dute urtea despeditu aurretik / 15

Bakaikuko eskola zena, zaharberritu edo botatzea baloratzean iritzi trukea / 8

Sakana Triatloi Taldeak Nafarroako Duatloi Kros Txapelketa eta Altsasuko Duatloia antolatuko ditu / 17

Zabaleta lidergoa sendotzera eta Ezkurdia eta Martija bigarren puntua lortzera / 19

Itsaso Arenzana etxarriarrak 'Viejos mundos nuevos' antzezlanaren eginen du Etxarrin / 22

Joseba San Sebastian musikaria Lakuntzan bizi da, eta Modus Operandi taldean dago / 23



Xabier Unanua Mikel Larequiren alboan, grabaziorako argibideak ematen. MUXU ESTUDIOA

Bideak, bidea egiten

Aritz Ganboa eta Xabier Unanua *Bideak Dokumentala* filma aurkezten dabilta buru belarri. Filma Unanuaren Muxu Estudioak egin du, eta "poliki, zentzuz, buruz eta mimoz" egindako lana dela nabarmendu du irurtzundarrak

Maidar Betelu Ganboa eta Eneida Carreño Mundiñano IRURTZUN

2019ko lastailaren 26an, goizeko ordu txikitan Arruazutik korrika abiatu eta hurrengo egunean, lastailaren 27an Izabara iritsi zen Aritz Ganboa de Migel artzain arruazuarra, alboan Iker Karre-ra ultra trail espezialista eta hainbat lagun zituela, mendiz mendi 170 km eta 8.000 metroko desnibel positiboa gainditu eta gero. Ibilbide guztian barna Albi

Idiazabal Jatorri Izendapeneko bere gaztandegian egindako gazta gainean eraman zuen Ganboak, eta Izabara heltzerakoan Jose Manuel Marco artzainaren erreleboa hartu duen Marina zuen zain, Belaguan Erronkari Jatorri Izendapenarekin gaztak egiten dituen artzaina. Gaztak trukatu zituzten, alboan hirugarren gazta bat zutela, Iparraldeko Ossau-Irati Jatorri Izendapeneko. Ondoren, egun osoko festa ede-

rrarekin ospatu zuten *Bideak* erronkaren arrakasta.

Erronka honekin bere arbasoen bi herriak lotu nahi izan zituen Aritz Ganboa artzainak, Arruazu eta Izaba, baita bi familien artzaintza tradizioa ere, Ganboaren herri bateko eta besteko familietan artzainak baitzeuden. Baina bere erronka pertsonala ibilbide kolektibo batean bilakatu zen, erronka askotariko erronka potoloan, gure ondare zabala -giza, kultur, kirol,

ingurune, paisaia, ekonomia, historia, gastronomia...- aldarrikatzeko egitasmoan, gure ondarea jasotzeko ekimenean, hain zuzen ere. Ibilbide horren lekukotza irudietan jaso behar zela argi izan zuen arruazuarrak hasieratik, eta horretarako, Muxu Estudioko Xabier Unanua Goikoetxea irurtzundarrarengana jo zuen. Egunotan, lan horren fruitua aurkezten ari dira Xabier Unanua eta Aritz Ganboa: *Bideak Dokumentala*.

Bi ero elkartzen direnean...

"Aritz 2018an etorri zitzaidan, apirila aldera, eta harrikada bat bota zidan. Berak sarritan esaten du erobatiez zaiola kasurik egin behar, ezta? Baina beste ero batekin elkartzeko bada, begira zer gertatzen den, biek erokeriak egiten dituztela. Eta horrela hasi zen historia hau guztia. Aritzek bere ideia aipatu zidan, Arbizutik Izabaraino korrika joatearena, gazta gainean eramanda, artzaintzaren eta bere bi jatorrien lotura hori islatzeko nahia. Prozesu guztia jaso nahi zuen: kirol prestaketa, mendiz mendiko ibilbidea zehaztea, artzai-

nen lanari aitortza egin, euskarari, gure kultura, kirol eta usadioei aitortza egitea... Aritzen proiektura batu nintzen eta bidean geroz eta jende eta talde gehiagok parte hartu du. Proiektu oso xumea da, luze iraun du, baina bidea oso oparoa izan da, jende askok parte hartu duelako. Hori pelikularen bukaeran ikusten da, kredituetan, ekimenean parte hartu duen jende guztiari eskerrak eman nahi dizkiogulako. *Bidean Dokumentala* lan luzea izan da, baina poliki poliki, zentzuz eta buruz egindakoa" dio Muxu Estudioko Xabier Unanua. Berak egin du filma, berak zuzendutako lantaldeak landutako materialarekin.

Hamaika elkarriketa

Bidean Dokumentala filmean Aritz Ganboaren erronkak bezainbesteko garrantzia dute erronkaren inguruan landutako gaiak. Adibide batzuk ematearren: herrietan egiten diren auzolanak, emakumeek artzaintzan duten papera, antzinako mendietako bideak eta sendak berreskuratzeko lana, mendi lasterketen atzean dauden garai bateko apustuak, mendi lasterketak prestatzeko beharrezkoak diren elikadura eta prestakuntza fisikoa, erronka pasatzen den tokiei eta herriei buruzko istorioak, landa eremuaren erronkak eta beharrak, nekazarien lana, azokak, gure kirolak, euskararen etorkizuna, gazta gainean eramateko motxila berezia egiteko Ternua etxeak diseinatutako motxila berezia, garai bateko euskal baleontziek Sakanarekin eta gure mendiekin zuten lotura -San Joan baleontzia egiteko Albaolaren egitasmoa-, Lakuntza-Aralar eta Zegama-Aizkorri mendi lasterketak antolatzen dituzten klubek egiten duten lana, gaztak nola egiten diren, jatorri izendapenen garrantzia, Orbaizetako zabalzarren etxean Mikel Zabalzari gertatutakoa ekartzen dute gogora... eta abar luze bat. Eta elkarriketa horiek guztiak egin eta jaso dira dokumentalean, tartean Arruazu eta Izaba arteko erronkako irudi ikusgarriak tartekatzen diren bitartean.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Bildutako guztia 90 minututan laburtzeko erronka

"Niretzako dokumental hau egitea erronka bat izan da, Aritzena bezala. Genuen informazio eta elkar-rrizketa guztiak 90 minututan laburtzea ez da batere erraza izan. Hau argi geratu behar da. Orduak eta orduak genituen grabatuta, eta oso indartsuak eta kañeroak ziren elkar-rrizketa batzuk kutxan gorde behar izan ditut, eduki aldetik asko esaten zutenak. Dokumentalekin hori gertatzen da, gauza asko gordeta gelditzen direla. Hala eta guztiz ere, ekimenean parte hartu duen jendearekin zintzoak izan gara, gutxienez unetxo edo tarteren batean guztiak ateratzen baitira gure dokumentalean, nahiz eta eskaini diguten denborarekin ezinezkoa izan zai- gun" azaldu du Unanuak.

Dokumentala egiteko prozesua luzea izan da. "Lan handia zegoen, Aritzek egin nahi zuen Arruazu eta Izaba arteko ibilbidearen trazaketatik hasita, xenda eta bidexka asko galduak baitzeuden. Lantalde bat egin zen horretarako, eta zenbait herrietako bizi- lagunek garai bateko bideak berreskuratu zituzten, auzolanean. Aldi berean, sekulako ondare bilketa lana egin da, bai natura, kultura, historia eta giza ondareari dagokionez. Auzolan erraldoia izan da. Horrek lanke- ta sakona ekarri du, eta nahiz eta bideoan gaiak sakontasunez ez landu, gai horiek guztiek lotura duten antzeztoki bat sortu dugu. Bestalde, erronkaren prestakuntza grabatu beharra zegoen: entrenamenduak, Lakuntza-Aralar eta Zegama-Aizkorri lasterketak... eta Arruazu eta Izaba arteko lasterketa bera, aurretik eta ondoren egin ziren elkar-rrizketa horiek guztiekin batera. Bukatzeko filmaren edizioa egin, musika sartu eta horrek dakarren guztia. Poliki eta mimo handiz egindako gauza izan da. Gurea proiektu xumea izan da, baliabide gutxirekin egindakoa, baina aldi berean oso aberatsa, ikusita zenbat jendek parte hartu duen" nabarmendu du irurtzundarrak.

Ikus-entzunezkoa egiteaz gain, dokumentaleko soinu banda Xabi Unanuak berak sortu du. "Ez bakarrik irudiekin eta hitzekin, bizitako esperientzia musikari gisa ere adierazi nahi nuen" aitortu du.

Dirulaguntzak

Dokumentala grabatu ahal izateko jaso duten laguntza ekonomi-



Aritz Ganboa Izabara iritsi eta gazta trukatu zuen unea. AMAELUR

koa ere eskertu nahi du Unanuak. "Crowdfunding kanpaina bat egin genuen, eta kamiseta eta gazta zati baten truke euren aletxoa jarri zuen jende askok. Entitate publiko eta pribatuetatik ere laguntza jaso dugu eta oso esker- tuta gaude. Laguntza hauek bereziki grabaketak egiterakoan erabili ditugun bitartekoak eta teknikariak ordaintzera eta izan ditugun gastuak estaltzera bide- ratu ditugu. *Bideak Dokumentala* ez da superproduktzio bat, guk ulertzen dugun moduan. Baina niretako superproduktzio bat da: bi tiporen ideiatik abiatuta puztu eta handitu den ekimena, alboan izan ditugun lagun eta kideei esker eta bidean topatu dugun jende guztiaren parte hartzeari esker. Hori da niretzat superpro- duktzio bat" dio Xabier Unanuak.

Xabier Unanuak hasieratik argi zuen egitasmoa handia izan- go zela. "Erronkak mamia eta gaia bazuen. Oso gartsuak gara, eta zerbait polita eta indartsua aterako zela banekien. Baina gehien harritu nauena, benetan, zenbat jendek parte hartu duen ikustea da. Eta hori azpimarra- tu nahiko nuke behin eta berriz"

"ERRONKAK MAMIA ZUEN. ZERBAIT POLITA ETA INDARTSUA ATERAKO ZELA BANEKIEN"

XABI UNANUA

azaldu du Muxu Studioko ar- duradunak.

Erronka bat, eta aldi berean, beste hainbat erronka

Bideak Dokumentala filmean ikusleak zer ikusiko duen galde- tuta, "laburbiltzeko zaila" dela erantzuten du Xabi Unanuak. "Ikusleak erronka bat ikusiko du, eta, aldi berean, beste hainbat erronka. Ez bakarrik Aritzena, baizik eta jende askoren erronkak islatzen ditu filmak. Hau guztia Aritzen egitasmoarekin hasi zen, gazta bat motxilan sartuta, Arrua- zutik Izabaraino takada batean korrika joateko nahi horrekin, bere bi jatorriak lotzeko. Baina erronka hori aitzakia da beste hamaika gailantzeko. Kontakizun bat da, non beste kontakizun batzuk tartekatzen diren. Esan daiteke hainbat pertsonen hitze- kin kontatzen dugun edo sortzen dugun agertoki bat dela *Bideak Dokumentala*.

Martxoaren 7an, Etxarri Aranatz *Bideak Dokumentala* abenduaren 17an mustu zen Iruñean. Aben- duaren 19an Altsasuko Iortia Kultur Gunean egin zuten aur- kezpena, abenduaren 26an Arrua- zu, abenduaren 27an Irurtzunen, ilbeltzaren 9an Lakuntzan eta, Sakanako herriez gain, Euskal Herriko hainbat tokitan ikusi da filma eta ikusiko da, datozen egunotan. Tartean, martxoaren 7an Etxarri Aranatzera helduko

"Ikus-entzunezkoen munduan nago buru belarri"

XABI UNANUA MUXU ESTUDIO

Zein da zure ibilbidea ikus-entzunezkoen mundu honetan?

Duela 15 urte baino gehiago hasi nintzen mundu honetan, eta bide horretatik jarraitu nuen komunikazio agentzietan eta beste. Duela 7 urte nire estudio propioa sortu nuen, Muxu Estudio, eta horretan nago, diseinuan eta bereziki ikus-entzunezkoetan oso murgilduta, horretan espezializatuta.

Betidanik izan duzu argi horretan lan egin nahi zenuela?

Ez, ni oso saltseroa izan naiz beti, gauza ezberdinak probatzen aritu izan naiz. Baina irudiaren eta filmen kutsu eta erakargarritasun hori txikitatik izan dut. Azkenean afizio txikiak,

konturatu gabe, zure biderik nagusienean bihurtzen dira gero.

Aurretik ere ikus-entzunezko lan batzuk eginak dituzu.

Bai. Musikan bideoklipak eginak ditut: Izaki Gardenak taldearena, Gaur Ez nire taldearenak edo Virenquerena. Duela hiru urte *Cortate el pelo,*

el rock de los 60 en Navarra dokumentala egin nuen Marino Goñirekin; horretaz gain Hutsun taldeko txalapartariekin 20 minutuko dokumental txikia egin genuen, *Hamaika herrialde, hizkuntza bat*, Marokon beraiekin eta musika talde batekin grabatutakoa. Horretaz gain, herrian bertan sortzen diren istorioak daude, esaterako Irurtzunen Trinitate ermitako obren ikus-entzunezko bat egin genuen 2020an, eta arlo pribatutik eta publikoetatik eskatuta egindako lanak.

Orain beste ekimenen bat ba al duzu esku artean?

Beti ez dakit zenbat txori izaten ditut buruan, baten bat hartu eta horri helduko diogu (kar, kar...) Beti dago zerbait egiteko, enkarguren bat edo lanen bat, eta horretaz gain, orain buru belarri gaude *Bideak Dokumentala* aurkezten, horretan zentratuta eta disfrutatzen.

da. "Gure filma ikusi nahi dute- nek oso erraza dute: gurekin harremanetan jartzearekin nahi- ko. Tartetxoren bat bilatuko dugu edozein herritan emateko, noski baietz" dio Xabi Unanuak (info@bideakdokumentala.eus).

Biak, Aritz Ganboa eta Xabi Unanua, doaz aurkezpenetara. "Argi dugu dokumentala emiti- tzearekin bakarrik ez dela nahi- koa, gutxienez hasiera honetan. Eta horregatik erabaki genuen aurkezpenetara biok joatea. Do- kumentala berez ulertzen da, ez du azalpenik behar, baina gero hausnarketa espazio bat sortzen da, eta jendeari kontaktu nahi diogu honek guztiak zer ekarri digun, zer suposatu duen gure- tako. Proiektuan sortutako parte hartze, elkarlan eta auzolana kontatu nahi dugu, prozesua nola izan den eta lanak guretako duen balioa. Dokumentalak atzetik

izan duen historia, lana eta bes- telakoak".

Harrera ona

Filmak harrera ona izan du. "Jendea zorionak ematera hur- biltzen zaigu, ekarpen onak eta politak jaso ditugu. Kontua da pandemiagatik jendea berehala etxeratu behar dela, gu gustura geratuko ginateke gehiago, bai- na denbora gainera etortzen zaigu" dio Xabi Unanuak.

Bideak Dokumentala filmak gure ondarea jasotzen du. Jarrai- pena izan dezakeen galdetuta, erantzuten ez dakiela esan du Unanuak. "Orain filma aurkezten ari gara, oso gustura. Proiektu hau herritik jaio zen eta herritik jarraitu behar du, baina ez dakit zein ibilbide izango duen, bidean ikusten joango gara. Etor daitez- keen ekarpenak edo proposame- nak gustura hartuko ditugu".



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Sena

Sena hitza gutxitan entzuten da, hitz sakona eta esanahi handikoa bada ere. Euskaltzaindiaren hiztegiaren arabera hiru adiera ditu sena hitzak eta hiruen beharra aitortu nahi nuke, gertatu zaizkigunak azaltzeko balio dutelakoan.

Lehenengo adieran, sena hitzak berezko joera bat adierazten du, indartsua, sortzez agertzen dena, alegia, ikasten ez dena. Izaki bizidun guztiok omen daukaguna edo espezie bateko banakako izaki guztiek batera daukatena, esate baterako, bizirauteko sena. Pentsatzekoa da bizirauteko senak aterako gaituela pandemia honetatik. Baina gure gertuko sena hau ez dago bakarrik gure esku, gauden globalizazioaren garai honetan, argi ikusi baitugu, munduaren bestaldean dagoen bizirauteko senaren nondik norakoak gurean egun batetik bestera eragin duela.

Bigarren esanahian, pertsona batek erakusten duen sena, alegia, "ongi" aritzeko trebezia, abilezia, ez da gogoetaren, esperientziaren edo heziketaren ondorioz lortutakoa, baizik eta, berezkoa duen zerbait. Kasu honetan sena intuizioaren pareko dela esan genuke. Intuizioa

ZENTZU ONA BEHAR DUGU GURE SENERA ITZULTZEKO EDO GURE SEN BERRIRA IZANEN DENERA AILEGATZEKO

senaren bidez eskuratzeko den ezagutza litzateke eta gertatzen denaz berehala ohartzeko trebetasuna. Zentzu honetan senaren oinarrian, neurri batean, "berezko" jakinduria eta esperientzia leudeke, nahiz eta, modu arrazionalen,

frogatzeko moduan, alegia, adieraztea ezinezkoa izan. Mota honetako senaren beharrean gaudela esan nuke, sen mota hori duten emakume eta gizoneen behar gorrian.

Hirugarren adieran, senak, zentzu ona, gogo oreka eta konortea esan nahi du. Pandemia egoeran gure senetik aterata gaudela eta zer egin ez dakigula gabiltza. Oreka galdu dugu, zentzu guztietan eta oreka berrien bila sen berriaren bila gabiltza, aurreko bi senen premian, apika. Zentzu ona behar dugu gure senera itzultzeko edo gure sen berrira izan dena ailegatzeko.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Txertoa

SASOIA JUBILATUEN ELKARTEA

Pandemia etorri zitzaigula urte bat egin behar du, eta gero eta indartsuago ikusten zaio, muga guztiak apurtzen ari da. Txertoan jarria genuen itxaropen guztia, parafernalia guztiakin egin zitzaion ongi etorria, espektakulu aparta muntatu ziguten, bai garraiatzerakoan, bai zahar etxeetako adinduei jartzerakoan. Gertaera garrantzitsuak denbora errealean eman behar zaizkio eta, ahalik eta modu erakargarrienean, gaur egungo jendeari.

Ongi etorria izan dadila txertoa pandemia nazkagarri honi aurre

egiteko, ez gure agintarien burua zuritzeko eta gutxiago protokolo guztien gainetik, erantzuleek, onuradun izateko. Horrelako egoera batean ere, gizartearen interesak interes pribatuen menpe ikusi behar izatea salatu beharra dago. Noiz aterako ote da pandemia honi aurre egiteko txertoa! Noiz aldatu behar ote dute jarrera gure agintariei, noiz hasi behar ote dira zerbitzu publikoak sustatzen?

Pandemiaren hasieratik adibide gordinak uzten ari da politika pribatizatzaile hau. Zer gertatu da gure ospitaleetan, gure osasun etxeetan, lehen arretekin, zahar etxeekin... Egoera ikusita Nafarroako Gobernuaren kudeaketa osasun arloan ez dugu erabat gaitzetsiko, baina zahar

etxeei dagokionez, larritzat jotzen dugu bere jarrera. Ez du ezer jakin nahi zahar etxe publikoak irekitzearekin, inbertsio pribatuen esku uzten ari da "El Vergel" izan ezik. Jabetu ez, diru laguntzak bai. Eta hara hor zer gertatu den eta zer gertatzen ari den; hau ez dugu onartuko. Gure aldarrikapenak hauek izan dira beti: Osasun Sistema Publikoa eta Zahar Etxe Publikoak. Ez dugu negozioaren diru iturri bilakatu nahi.

Jubilatu guztiei zuzentzen dizuegun mezua hondokoa da: jarraitu dezagun borrokan elkarrekin, berma diezaizkigutela Osasun Publikoa, Pentsio Sistema Publikoa, Pentsio duinak, zahartzaro lasai eta zoriontsu bat izateko.

GUTUNA

Milaka urratsez, oso aurrera egin dugu

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA ETA FRAN BALDA ARAÑA

NAFARROAKO SAREREN IZENEAN

Aurtengo urtarrileko erronka ez zen makala. Helburua, argia, handia: euskal presoek etxeratze prozesuaren baitan, jendarte-bulkadari bidea ematea. Zailtasunak, agerikoak. Gaitzaldiari elurtea gehitu zitzaion. Jendea atera, mugitu eta biltzeko oztopo asko. Posible ote jendarte honen gehiengo zabal baten gogoia ikusgarri egitea? Eta bai, emaitza ikusgarria izan da oso. Zuri esker:

Iruditzen zaigu gu geu garelako lortutakoaren garrantziaz jabetu behar dugun lehenengoak. Hainbeste maite dugun mendizaletasunetik hartutako metafora erabiliz, amesten dugun gailurra

zapaltzeko gainditu beharko ditugun zailtasunak begi bistan ditugunean, onuragarria da bidean gelditu, burua altxa, atzera begiratu eta dagoeneko egin dugun bide zatiaren tamainaz jabetzea, gehiago delako ibili duguna gailurrera iristeko geratzen zaiguna baino.

Gaur, presoek korapiloa askatzeko erronka da herri honetan aniztasun gehien, indar gehien eta kontsentsu gehien biltzen dituen jendarte erronka. Ukaezina den errealitate honek erakusten du jendartearen gehiengo zabalarentzat, eragile sozial, politiko eta sindikal nagusi nagusientzat, presoek korapiloa askatzea dela elkarbizitza eta konponbideari lotzen zaion aldagaia; jendarte honek etorkizun berri bati begietara begiratzeko duen urgentiari, politika alderdikoien lehiatik atera eta herri gisa hartu behar den erronka dela.

Hauze baita gailurrera iristeko egiteko dugun bidea irekitzeko gakoa. Denok konfiantza izatea gailurrera iritsitakoan denok izango garelako garaile, denon ikurrak jartzeko tokia egonen dela, inork ez duela gailurra berarentzat eta bere ikurrentzat bakarrik hartu nahi izango. Bidea ere gero eta garbiago ageri zaigu aurrean: salbuespeneko espetze politikaren aroa atzean utzi behar da; urrunketa amaitu, gaixoak eta adinduek kaleratu. Gailurrera eramaneen gaituen bidea egiteko heldulekuak ere finkaturik daude: presoak elkarbizitzan txertatzeko akordio zabala edo eta 7/2003 legearen aplikazio malgurako tresnak adostea.

Ez du zentzurik orain egin daitezkeen urratsak gerorako uzteak, denbora alferrik galtzeak hodei beltzen eta ekaitzen etorrera besterik ez du ahalbidetuko.

Zatoz gurekin! Izan Bidea!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
María Luisa Zelaia

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK





SOSTENIBILIDAD RURAL LANDA IRAUNKORTASUNA

Energia onean parte hartuz

Nafarroako hiru lurralde elkarlanean aritu dira, 2020ko uztailetik, aholkularitza eta akonpainamendu proiektu batean. Landa-eremuan aurreztera, energia-efizientziara eta energia berriztagarrien promoziora bideratutako ekintza kolektiboek eskaintzen dituzten ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako hobekuntzarako aukerak lantzen ditu proiektuak.

Erdi Aldeko, Mendialdeko eta Lizarraldeako Tokiko Ekintzarako Taldeak garatzen ari diren Landa Iraunkortasuna proiektuak, beste batzuen artean, "Alkatetzen Itunak Klimarako eta Energiarako" ekimenara atxikitako entitateei laguntza tekniko bermatzea du helburu. Entitate horiek 2030 baino lehen CO2 emisioak % 40 murrizteko konpromiso boluntarioa hartu dute, nola eta energia-efizientzia hobetuz, beren lurraldeetan energia berriztagarriko iturriak erabiliz eta klima-aldaketaren ondorioetara moldatzeko neurriak ezarriz.

Laguntza tekniko horrekin batera, proiektuak aurrezteari, energia-efizientziari eta energia berriztagarrien ezarpenari buruzko neurri berriak bultzatu nahi ditu landa-lurraldeetan, tokiko entitateei zein herritarrei eskainiko zaien aholkularitza eta akonpainamendu zerbitzu baten bidez. Talde-lan horrek ekintza iraunkor horien bultzada errazten du.

Beste helburuetako bat sentsibilizazioa da, energia aurrezteko eta efizientzia energetikoa lortzeko neurrien beharraren ingurukoa; halaber, tokiko erakundeetan energia berriztagarriak sustatu nahi dira, eta lurraldeetako tokiko biztanleengan enpatia sortu ere, energia-eredu berri jasagarriago baterantz batera joateko.

Hiru lurraldeetako Tokiko Ekintzarako Taldeak joan den uztailean hasi ziren proiektu horretan lanean, eta ekimenak jarraipena izango du 2021ean; beraz, eskaintzen dituen aukera guztiak ezagutu nahi dituzten erakundeek eta pertsonak tokiko talde bakoitzera jo dezakete informazioa biltzeko eta neurri horiek ezartzeko laguntza lortzeko.

Zein ekintza eskaintzen dira?

Tokiko entitateak

- Aholkularitza eta akonpainamendua Alkatetzen Itunak Klimarako eta Energiarako ekimenen (NASUVINSAk kudeatzen du ekimena).
- Aholkularitza energia-kontsumoen kontrola eta murrizketa egiteko eta energia berriztagarriak ezartzeko.
- Akonpainamendua energia kontsumitzen duten instalazio publikoen (argiteria publikoa eta eraikin publikoak) inbentarioa egiteko.
- Energia-kontratua berrikuspenean, instalazioetara bisitak energia hobetzeko eta hori lortzeko neurriak proposatzeko.



Herritarrak

- Zerbitzu tekniko aurrezteko neurrien inguruan eta aholkularitza etxebizitzetako energia-efizientzia eta energia berriztagarrien promozioan.
- Aholkularitza argiaren eta energiaren fakturei buruz eta bonu sozialaren tramitazioan.

Erdialdea

- * Autokontsumorako instalazio fotovoltaikoak dimentsionatzea, eraikinen kontsumoaren arabera, tokiko entitateentzat eta herritarrentzat.
- * Aholkularitza eta akonpainamendua SIE plataforman datuak kargatzeko, atxikitako udalentsat.
- * Prestakuntza-tailerrak aurreztearen eta energia-efizientziaren, energia berriztagarrien eta elektrizitate-fakturazioaren inguruan, herritarrentzat.



Telefonoa: 948 74 07 39
energia@navarramedia.org
www.navarramedia.es

Nafarroako Mendialdea

- * Komunitate energetikoak sortzeko interesa duten kontzejuen azterketa.
- * Prestakuntza-tailerrak aurreztearen eta energia-efizientziaren, energia berriztagarrien eta elektrizitate-fakturazioaren inguruan, herritarrentzat.
- * Lurraldeko energia-instalazioak ezartzeko azterketak (baso-biomasa, minihidraulikoa eta eguzki-autokontsumo fotovoltaikoa), eraikinen benetako kontsumoaren arabera, tokiko entitateentzat eta herritarrentzat. Bero eta energia-sareetarako bideragarritasunaren azterketa (energia-komunitateak).



Telefonoa: 697 65 56 64
infoenergia@cederna.es
www.cederna.eu

Lizarralde

- * Lurraldeko energia-instalazioak ezartzeko azterketak (baso-biomasa eta eguzki-autokontsumo fotovoltaikoa), tokiko entitateentzat eta herritarrentzat. Energia-sareen azterketa (beroa eta elektrizitatea).
- * "Infoenergia antenak" zerbitzua: tokiko entitateen, oinarriko gizarte-zerbitzuen eta elkarten arteko hitzarmenak, zerbitzua lurraldeko pertsona guztiengana hurbiltzeko.
- * Prestakuntza-tailerrak aurreztearen eta energia-efizientziaren, energia berriztagarrien eta elektrizitate-fakturazioaren inguruan, herritarrentzat.



Telefonoa: 948 55 65 37
infoenergia.teder@montejurra.com
www.teder.org

Altsasuko auzian fase berri bat ireki da

Auzipetuek, gurasoek eta plataformak halaxe jakinarazi zuten prentsurrekoan larunbatean. Azken lau urtetan bititakoaren balorazioa egin zuten. Auzia Giza Eskubideen Europako Auzitegian dago eta helegiteak tramitera onartuko dituzten edo ez, horren zain daude. Baita Jonani eta Juleni 3. gradua emateko zain ere. Auzipetuen esanek lau urteen errepasoa osatzen dute



“ Prozesu luzea eta gogorra izan da korapilo handi hau hasi eta lehen aldiz atxilotu gintuztenetik.



“ Euskal Herrian eta Estatu osoan izan diren hamaika muntaia politiko, mediatiko, judizial eta polizialeko bat baino ez gara izan. Baina, arrazoren batengatik, beste batzuek gaintitu ez dituzten mugak gaintitu ditu kasu honek. Muga horiek ez genituzke gaintituko hainbat leku eta esparruetatik jaso dugun babes, konpromiso eta elkartasun ikaragarririk gabe.



“ Guardia Civilaren eta zenbait komunikabideren arteko lan planifikatua da muntaia honen ardura. Estolderia, Covite, fiskal eta salbuespenezko auzitegiak eta hauteskundeei begira inposaturiko bertsioa zabaldu eta txalotzen zuten politikariekin harreman estuak dituzten komunikabideek lagundu dute kasutik haratagoko interesen araberrako muntaia eraikitzen, eta, egia gutxi axola izan zaie.



“ Badakigu ez genukeela inoiz preso egon behar eta bidegabekeriak bere horretan dirauela, baina, gaur egun, prozesu guztia perspektibarekin aztertuz, lorpen gisa interpretatzen dugu hemen egotea.



“ Altsasuko herritarrek prozesu honetan zehar egindako lana goraiatu nahi dugu bereziki. Euskal Herri osoan eta Estatuko hainbat tokitan, bereziki Katalunian, haserre kutsatzea lortu zuten etengabeko mobilizazio bihurtuz.



“

Estatuko hainbat kartzela ezagutu ditugu, eta errealitate bidegabeak pairatu, hala nola sakabanaketa, isolamendua edota FIES erregimena.



“

Gu guztiok eskuratu ditugu erdi askatasuneko egoerari dagozkion espetxe erregimenak. Klean egon arren, ez gaude libre. Jonan eta Julenek gauero itzuli behar izaten dute espetxera lotara, eta asteburuetan giltzapetuta egon behar izaten dute.



“

Hori guztia ez litzateke posible izango gure gurasoak biltzen dituen Altsasu Gurasoak taldeak eta Altsasukoak Aske plataformak egindako ahaleginik gabe. Izan ere, sufrimendua borroka bihurtzen jakin zuten, amorrua konpromiso eta haserrea gizartearen zati handi baten justizia eta askatasun nahi. Lan hori izan da jaso dugun elkartasun guztiaren oinarria.



“

Mila esker lau urte hauetan zehar zuen aletxo edonon eta nolanahi eskaini diguzuen guztioi, ez dugu inoiz ahaztuko, eta ez dugu inoiz behar adina eskertuko.



Euskaltel Nafarroan hedatzen ari da Landanet-en eskutik.

Lan egin nahi duzu gurekin?

- bidali curriculum: rrhh@logikaline.com edo
- deitu: 943 31 86 06





Eskola zenarekin zer egin aztertzen

Herriko plan estrategikoan lehentasunetako bat eskolen eraikina zenaren inguruan erabaki bat hartzea. Prozesua martxan da eta bota edo zaharberritzearen arteko iritziak eman zituzten ostiraleko bileran

BAKAIKU

Bakaikuko udal arkitektoak ostiralean bi proposamen aurkeztu zituen: eraikina zaharberritzea edo bota eta berria jasotzea. 25 bat bakaikuarrek entzun zituzten haren azalpenak. Egoitz Urritza Lazkoz alkateak jakinarazi duenez, "bi proposamenei buruzko inpresioak jaso ziren; bata eta bestearen aldeko eta kontrako iritziak entzun ziren. Ez zen ezer adostu". Alkateak gaineratu duenez, "Toki Administrazio Departamentuarekin eta Nasuvinsa enpresa publikoarekin harremanetan gaude, dirulaguntzei eta bestelakoei buruzko informazioa jasotzeko. Horren arabera emanen ditugu etorkizunean pausoak".

Egungo eraikina zaharberritzeko proiektuan jaso dagoenez, beheko solairuak sarrera eraikinaren erdian izanzen luke. Arranpa bat igo beharko litzateke hara sartzeko eta parean komunak leudeke, ezker-eskuin,



Bakaikuko eskola zaharra.

berriz, bi espazio edo gela handi. Azken horiek bi, hiru edota lau gelatan bana zitezkeen, baina halakorik ez zuten zehaztu ostiralean. Garbi ikusten zen bakaikuarrei zerbitzuak emateko erabilera izan beharko luketela.

Bestalde, iritzi trukearen ondoren, goiko solairuari zein erabilera eman aztertzeko gelditu zen.

Dagoena bota eta eraikin berria eginez gero, arkitektoak planta bakarrekoea egitea proposatu zuen. "Proposatu du eskolaren atzean dagoen espazioan, kasik partzelaren mugaraino eramatea eraikina. Bolumen bakar hori nahi bestetan banatu zitekeela esan zuen jendeak. Gainera, beheko solairua izanik bakoitzak bere sarrera izan zezakeela. Baina ez zen sakondu". Urritzak azaldu duenez, arkitektoaren proposamenak entzunda, "gelditzen diren bolumen horietan zer banaketa egin, horretan zentratu ziren iritziak, erabileran baino".

Bestalde, Bakaikuko Udalak kanposantua arautzen duen ordenantzan aldatu du nitxoan eta kolunbarioen betebeharrak parekatzeko. Eguneratzearen ondorioz, kolunbarioak ixteko orain hilaerriak jarri behar dira.



Pikuxarreko bazkideak 2013ko elkartearen egunean.

Pikuberrira arte, Pikuxarre betirako itxi ditu ateak

Pikuxar euskal txokoak larunbatean itxi zituen ateak, udaberrian taberna berriko ateak irekitzeko asmoz

IRURTZUN

Otsailaren 11ra arte indarrean izanen da taberna barruan ez sartzeko agindua, baina terrazak %100ean erabil daitezke. Terraza txikia duten establezimenduek ixtea besterik ez dute eta hori da, hain zuzen, Pikuxar euskal txokoaren kasua. Neurri berriak indarrean sartzearekin batera, larunbatean itxi zituen ateak. Pikuxarrekoek egoitza berria (taberna eta elkartea) egiteko lanak aurreratu dituzte, baina udaberrira arte gabe gelditu dira. Orduan taberna zabalduko dute. Elkartea noiz hasiko diren era-

biltzen pandemiaren garapenak esanen du.

Pikuxarre 17 urte eta erdi egin ditu San Martin kaleko 15. zenbakian. 2003ko garagarriaren 7an zabaltu zituen ateak. Larrazpi gazte elkarteko eta Orritz dantza taldeko hainbat gazteren ekimena izan zen. Kultur arloan mugitzen ziren eta Irurtzun euskal musika entzuteko taberna baten falta sumatu zuten. Elkarteko toki baten faltan premia ere bazuten. Ideia mamituz joan zen eta garai bateko Mabell. taberna zena herriko toponimo batekin izendatu zuten: Pikuxar.

Saharako errefuxiatuen aldeko jaki bilketa hasi dute

Etxarri Aranazko dendetan jasoko dituzte otsailaren 14ra arte eman daitezke jatekoak

ETXARRI ARANATZ

Sahararen Lagunen Nafarroako Elkartea (ANAS), Etxarri Aranazko dendetan laguntzarekin, desertuaren gogorenean, Tindufen, bizi diren saharar errefuxiatuei zuzendutako jaki bilketa egiten hasi berri da. Honako produktuak bildu nahi dituzte: lekaleak, arroza, pasta, azukrea, arrain kontserbak, oliba olioak, xanpua, gela eta xaboi pastillak. Antolatzaileek gaztigatu dutenez, jatekoek ezin dute txerririk izan eta kristalezko ontziak ez dituzte onartuko.

Jaki bilketan parte hartzeko Etxarriko dendaren batetik pasa ezin dutenek, dirulaguntza emateko modua dute honako kontu korronteen bidez: Laboral Kutxa ES74 3035 0113 59 1130021437; Rural Kutxa ES93 3008 0001 11 0700365729 edo Caixa ES33 2100 5319 49 2100199896. Bestela Bizum bidez ere egin daiteke diru ekarpena, 626 502 495 telefonoan. Elkartetik eskatu dute diru ekarpena egitean kontzeptuan izenabizenak eta nortasun agiria zehaztea, hala 2021eko errenta aitortpenaren deskontua izateko.

Altsasuko Geroa Baiko zinegotzi batek karguari uko egin dio

Altsasuko Udalaren atzoko bilkurako gai zerrendan zegoen gaietako bat zen Julen Diaz Oiarbideren karguari uko egiteko jakinarazpena. Geroa Baiko zinegotziak arrazoi pertsonalak argudiatu ditu udala uzteko. Koalizioaren zerrendan 3. postuan aurkeztu zen. Bigarren legegintzaldia zuen udalean, 2016ko apirilean Unai Hualderen lekukoa hartu baitzuen. Atzora arte bigarren alkateorde eta Ekonomia Garapen eta Enplegu batzordeko burua zen, baita Altsasuko ordezkaria Sakanako Mankomunitatearen batzarrean ere. Geroa Baik Altsasuko Udaleko 13 zinegotzietatik 10 ditu. Koalizioa ordezkaria bilatzen hasi da



EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus
beleixe 107.3 FM

Berdintasunezko Arakil lortzeko tresnaren aurkezpena

Emakumezko sakandarren aukera eta eskubide berdintasuna bermatzea du helburu ibarreko Berdintasunerako I. Planak. Sakanako Mankomunitatearen eta udalen kudeaketan genero ikuspegia txertatuko duen tresna da. Haren berri arakildarrei emateko Mank-eko Berdintasun Zerbitzuak planaren aurkezpena antolatu du Hiriberriko kontzejuei etxean asteazkenean, 18:30ean. Planari buruzko informazioarekin batera, plana Arakileran nola egokitu aztertuko dute. Baita planak ibarrean izanen duen eragina zehaztuko dute ere. Arakilen ondoren, Berdintasun Zerbitzuak gainontzeko herrietan saioak antolatuko ditu.

Aixita gazteluan auzolana egiteko sasoiko egon behar

Nafarroako Erreinua defendatu zuen gazteluetako bat da Aixita. Han arkeologia indusketak egin ditu urtetan Iñaki Sagredoren lantaldeak. Gaztelukoak urez hornitzeko ur zuloa zaharberritu zuten 2020an. Haren paretak ez izorratzeko zuloa harez eta harriz beteko dute. Eta horiek gazteluraino igotzeko deitu du oraingoan Arakilgo Udalak auzolana, igandean, 09:00etan, Etxeberrin.

Harea eta harriak dituzten zakuak bidearen erdian daude, eta azken zatia falta da igotzeko. Arakilgo Udalak oharra zabaltu du: "auzolan gogorra izanen da, beraz, egoera fisiko onean egotea komeni da". Ondoren gosaria udalaren kontura izanen da.



Unanurrek auzolanean konpondu zituzten apartamentuetara daramaten eskailerak. ARTXIBOA

Bi apartamentu egokituko ditu kontzejuak

Elkartearen eraikineko bigarren solairuan daude eta alokatu egingen ditu lanak despeditu ondoren. Beriaingo pista Babatzeko portalangara arte hormigoiz egiteko asmoa du; urtero zati bat egingen da

UNANU

Unanuko Kontzejuak, aurreko urtearekin alderatuz, bere aurrekontua bikoiztu du, 60.420 eurotik 122.470 eurora pasaz. 85.000 euro inbertsioetara bideratuko dituzte. Jesus Mari Balda Mercero kontzeju buruak esan digunez, "Karrika Nagusiko 26. zenbakian kontzejuak duen etxeko bigarren solairuan bi apartamentu prestatzeko lanetara bideratu dugu aurrekontuaren hazkundearen zati handiena". Bigarren solairu horrek 135 metro karratuko azalera du eta han bi etxebizitza egingen dituzte: "alokatu egingen ditugu. Herriko gazteei. Eta familia bat etortzen bada, hobe", esan du Baldak.

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza izanen dute lan horiek.

Kontzejuaren aspaldiko ideia bat, beraz, aurtun gauzatuko da. Esaterako, eskailerak auzolanean berritu zituzten 2019ko lastailaren 12an. Kontzejuarena den maistruben etxea ere alokatuta du, 2017an konpondu ondoren. Bi apartamentu berriak egitean kontzejuak beste diru sarrera bat izanen du.

Beriaingo pista

Beriainerantz igotzen den pistan, Unanutik 380 bat metrora, langa bat dago. Baldak azaldu duenez, "harainoko pista zatia porlanez egitea da asmoa. Malda handia du eta urak kalte handiak sortu

ditu. Lanak kostu handia duenez, hainbat urtetan egingen dugu". Aurtun, hasteko, pistako 70 metro porlanezatzatuko dituzte. Langatik gora bizi diren artzainak badaude eta haien joan-etorriak nola egin lanak egin aurretik aztertuko dituzte, porlana ongi ontzeko eta pista behar bezala berrituta gelditzeko denbora beharko baitu. Lanek foru administrazioaren dirulaguntza dute. "Eguraldia hobetzen denean egingen dituzte".

Bestetik, Baldak aitortu digu Unanu "nahiko kolapsatuta" dagoela mendizaleen joanarekin. Izan ere, Beriain mendia erakarrira mendizale ugari joaten da berez Unanura, handik mendi

ibilbidea hasteko. Jendeak non-nahi aparkatzen zuenez, herrian aparkatu ezin zen tokietan arrasto horiak margotu zituzten lurrean. "Baina elurrarekin ez da ikusten eta nahikoa da batek aparkatzea, atzetik gehiagok aparkatzeko. Apika, seinale bertikalak jarri beharko ditugu". Bitartean Unanuko Kontzejuak kideak ibilgailuendako aparkaleku bat egiteko toki egokiaren bila segitzen dute.

Leihoak, zuntza eta argiak

Despopulazioaren kontra jasotako dirulaguntza hiru kontzejuen artean banatu zuen Ergoienako Udalak. 5.506 euro horiekin Unanuko Kontzejuak erabaki zuen mediku kontsultategiko leihoak aldatzea. "Lanak emanda daude, etortzea eta jartzea besterik ez da falta", argitu du kontzeju buruak. Bitartean Etxarri Aranazko osasun etxetik asteartero joaten dira osasun langileak kontsultategira. "COVID-aren aurretik astearteetan eta ostiraletan izaten zen".

Unanuko Kontzejuak argiteria publikoan LED argiak jarri zituen 2018an. Baina ez frontoian. "Argiztapena dirua sartzen den makina batekin funtzionatzen du. Jendeak dirua sartu eta batzuetan ez du argitzen. Diru gehiago gastatzen dugu makina horretan argian baino. Horregatik, ez dago argirik".

Azkenik, Ondazgainen dagoen antena baten bidez jasotzen dute telebista seinalea eta Interneta unanurrek eta dorrobarrek. Baldak esan duenez, "zuntza herri gehiengain dago. Kontua da Movistarren monopolioa dugula eta asko pagatzen dugula". Gai horrekin zer egin aztertuko dutela gaineratu du.

kaxeta
LIBURUDENDA

Hemen salgail!

fotokopia@kaxeta.net
628 542 519 | 948 460 477

Autoen seguruak

MAPFRE
La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM
948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48
ALTSASU

**Zure esperientziarik onena
PREZIO ONENEAN**

PORTUKO
okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763



Pablo Lorente eta Aitor Larraza lankidetzak hitzarmena sinatzen. UTZITAKOA

Udalak eta Sustrai fundazioak hitzarmena sinatu dute

Lurraldearen eta ingurumenaren arloan aritzen da fundazioa, laguntza eskainiz

IRURTZUN

Irurtzongo alkate Aitor Larrazaren eta Sustrai Erakuntza fundazioko presidente Pablo Lorenteren sinadurak ditu bi erakundeek adostutako lankidetzak hitzarmenak, hilaren 14ko data duenak. Hitzartutakoaren arabera, fundazioak udalari teknika eta lege aholkularitza emanen dio, esaterako, ingurumen inpaktua eragin dezaketen proiektuak aztertuz, informazioa bilduz, alegazioak prestatuz eta lege laguntza eskainiz. Aldi berean, udalarekin batera, sentsibilizazio kanpainetan parte

hartuko du fundazioak, esaterako, hitzaldiak antolatuz, esku orriak prestatuz... Eta hainbat gairen gainekoak izan daitezkeenak: hondakinak, energia, natur baliabideen erabilera, mugikortasuna, azpiegiturak, abiadura handiko trenak,...

Halako hitzarmenak sinatuta daukate hainbat udalok aurretik. Ibarrean, Irurtzunez aparte, fundazioarekin hitzarmena dute Sakanako Mankomunitatea, Arakil, Ihabar, Uharte, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri, Bakaiku, Iturmendi eta Olatzagutiko udalak.

DUELA 25 URTE...



Gozogintza eskolako lehen ikastaroa

Vianako Printzea Gozogintza Eskola Altsasuko Udalaren eta Saiolan enpresaren ekimenez sortu zen. Ostalaritzako eta gozogintzako profesionali zuzenduta, haien lan jardura hobetzea zen helburua. Aurreikusi zuten gai jakinen eta iraupen laburreko ikastaroak hartuko zituen eskolak eta etorkizunean ikasle ez profesionalak zabaltzeko aukera aurreikusi zuten. Eskolaren mustutzea otsailaren 12an egin zuten.

"Akusazioa ukatu dut, guztiz faltsua da"

RUBEN GELBENTZU GONZALEZ ESPAINIAKO AUZITEGI NAZIONALEAN AUZIPETUA
Larunbatean, 17:00etan, Arbizuko plazatik abiatuko da 'Errepresioari STOP. Elkartasuna Rubenekin' manifestazioa

ARBIZU

ETak Leitza 2002ko irailaren 4an leherkariz egindako atentatuaren ondorioz Juan Carlos Beiro guardia civila hil eta beste lau agente zauritu ziren. Ismael Moreno epaileak Ruben Gelbentzu Gonzalez arbizuarra eta beste hiru auzipetu ditu. Zera egozten die: erakunde armatuko kide izatea, hilketa terrorista, lau hilketa terroristaren saiakera eta legez kanpo lehergailuak izatea.

Atentatu hori argitzeko, aurretik auzibideak zabaldu ditu Espainiako Auzitegi Nazionalak?

Orain dela 18 urte izandako gertaera horren kasuan, egile papelean baino, ekintza bera agindu izanaren akusaziopean, Frantziar Estatuko kartzelatan preso egonda, beste zenbait pertsona auzipetzeko saiakerak egon dira azken urte hauetan. Egile papelean, gu gara lehenak. Preskripzioaren muga.

Zer bide egin dute?

Tartean Frantziar Estatuaren hainbat baimenen beharra egonik, auzipetze saiakera guztiak bertan behera geratu dira.

Zein da zuen kontrako akusazioen oinarria?

Akusazioa oraingoan, 2002ko irailean, Leitza Guardia Civilaren aurkako ekintza batean parte hartu izana da. Militar bat hil eta beste lau zaurituta suertatu ziren. Baina prozedura hau, eta nire kasuan, 2003, 2013 eta 2020 urteetan emandako hiru auzipetze saiakera, bi atxiloaldi eta 10 ordutarainoko etxe mihaketa, Polizia Nazionala eta Guardia Civilaren polizia etxeetan 5 egunetako bi inkomunikazio, eta kartzelaldi saio batek osatzen dute. Prozedura guztiak, Polizia Nazionala eta Guardia Civilaren inteligentzia sailek osatutako idatzizko txostenetan oinarrituta daude. 2003 eta 2013ko auzipetzeak, behin-behineko artxiboan bukatu zuten.



Gelbentzuri elkartasuna adierazteko egindako bilkura. @ARBIZUKOAGA

"AUZIA INSTRUKZIO FASEAN DAGO ORAIN, EPAIKETARA KONDENATUTA GAUDE"

Zuei deklarazioa hartu ondoren, auziak aurrera egingen du?

Bai, abenduaren 28an, Auzitegi Nazionalaren aurrean egindako deklarazioaren ondoren, auziak aurrera egingen du. Akusazioa bere horretan mantentzen dute. **Epaileak kontrol neurriren bat ezarri dizue?**

Ismael Moreno epaileak, auzipetzearekin batera diktatutako behin-behineko askatasun probisionalean aurkitzen gara, hilaren 1 eta 15ean sinadura bitartez Auzitegi Nazionalako instrukzio 2. salaren aurrean aurkezteko beharrezkin. Miloi erdi euroko fidantza solidarioa ezarri zaigu, eta horri aurre egin ezean, gure kontu, ondasun eta diru sarrera guztien enbargoa ezarriko zaigu. Kontrol neurri hauek, aldakorrek dira. Prozeduraren edozein momentutan, akusazioek edo fiskalak eskatu, eta epaileak

berretsita behin-behineko kartzelaldian bihurtu daitezke.

Epaiketa egotea aurreikusten duzue? Prozedura jarraitu bitartean, epaiketara kondenatuak gaude. Benetan, zer eta noiz gertatuko den? Auskalo.

Erruduntzat hartuz gero, zein litza-teke jasoko zenukeen zigorra?

40 urtetik oso gorako kartzela zigorra. Gure adina eta espetxeen benetako helburua kontutan edukita, hil arteko zigorra ziurrenik.

Zer gogoeta egiten duzu auziaz?

Ilbilitakoak ibili eta gero, azken iteetan eta hainbat zentzutan, etenik izan ez duen errepresioaren beste adibide baten aurrean aurkitzen garela, gogoeta horrekin geratzen naiz. Mendekuak eta obsesioak elikatutako errepresioa gordin. Hitz polit eta marketing-ak estali edo desitxuratu ezin dutena. Zaharrak berri. Pertsonalean, Arbizu eta Sakanako hainbat herrietako jende anitzten partetik jasotako elkartasun eta babes zintzoarekin geratzen gara. Baldintzarik gabe, maitasunez emandako besarkada estuekin. Elkar babesaren adierazle garbi diren keinu duin eta askeekin.

Hondakinen Zerbitzuak lan poltsa osatuko du

Beharrak betetzeko da. Eskabideak otsailaren 8ko 14:00ak arte aurkez daitezke

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Hondakinen Kudeaketa Zerbitzuak peoi-gidaria, peoia, palagidaria eta antzeko lanak egiteko pertsonak bilatu nahi ditu. Zehazki, Hondakinen Kudeaketa Zerbitzuan sor daitezkeen beharrak betetzeko lan poltsa sortuko du eta kontratazioen iraupena zerbitzuaren beharren arabera izanen da. Poltsa osatzeko oposizio lehiaketa bat egingen du Sakanako Mankomunitateak.

Deialdian interesa duten pertsonak beraien curriculumak aurkeztu beharko dute, haien merezimenduak ebaluatu ahal izateko (Nortasun Agiria edo agiri baliokidea, merezimenduek agiriak, tituluen kopiak, langabe edo enplegu hobekuntzan aritzearen ziurtagiria, C1 motako gidabaimena, euskara maila).

Horrekin batera, hautagaiei bi proba egingen dizkie Sakanako Mankomunitateak. Alde batetik, test motako galdera zerrenda bati erantzun beharko diete interesatuek, eta, beste aldetik, suposizio teoriko praktikoa egin beharko dute. Hautaketa probak aurtengo otsailaren egitea aurreikusi du ibarreko erakundeak.

Leziza erreka bizi baten aldeko pausoak

Enpresak Ingurumen Baimen Integratua lortzeko hobekuntza lanak egingen dituela esan du

ARBIZU

Leziza errekaaren egoerarekin kezkatuta daude aspaldi arbizuarrek. Kezka horren inguruko batzarra hartu zuen udaletxeak larunbatean. Arbizuko udal ordezkariak enpresakoekin bilera izan zuten joan den astean eta haren berri eman zuten. Udaletik jakinarazi zuten, "enpresak hobekuntzak egiteko borondatea azaldu du". Beraz, Nafarroako Gobernuak lanean segitzeko lantegian egin beharreko hobekuntzak eta moldaketak egingen ditu enpresak. Nafarroako Gobernuak hiru hilabete eman dizkio. Eta Ingurumen Departamentua zuzeneko jarraipena egiten ari zaio, enpresaren ekoizpenak araudia bete dezan.

Ingurumen Baimen Integratua lortzeko Agotzaina enpresari Honako lanak egin beharko ditu: emariak modu egokian neurtu ez direnez, kreditatuta dagoen laborategi baten emari neurketaren txostena aurkeztea; enpresaren produktiotik sortzen diren lohiak toki itxian tratatzea, hala usainik ez sortzeko; isuriak kanalizatzea, gaur egun isuriak bideratzeko kanala ez baitago homologatuta eta, azkenik, isuriaren inguruko azterketa txostena egitea.

Ariketa fisikoa egiteko parkea erabilgarri dago

Arbizuko Udalak Olatzea parean jarri du adinduendako ariketa fisikorako zirkuitua, baita herritar guztiendako gimnasia zirkuitua ere. Ariketa fisikoa sustatzeko osasun paseoak hasi dira eta teknikari batek ariketa egiten erakusten du

ARBIZU

Medikuak aginduta, edo norberak hala nahi duelako, jarduera fisikoa egin beharra duten arbizuarrek aukera bat baino gehiago dute orain. Alde batetik, Arbizuko Udalak Olatzean ondoko berdegunean jarduera fisikoa egiteko zirkuitua jarri du. Zahartze aktiboa sustatzeko zazpi elementu jarri dituzte. Haiekin egin daitezkeen ariketekin besoak eta hankak landu daitezke, ariketa aerobikoak egin eta errotazio mugimenduak egin ere. Eta haien ondoan nola erabili azaltzeko argibideak daude. Gainera, Ane Lizarraga kirol zinegotziak aurreikusia du hitzordua jartzea eta tresnak nola erabiltzen diren erakustea.

Aipatu zirkuituaren ondoan, berdegunean bertan, bost elementu dituen gimnasia zirkuitua jarri du Arbizuko Udalak gazteek hala eskatuta. Haietan flexioak eta dominadak egiteko aukera dago. Adinekoek eta gazteek topo egingen dute bertan ariketa egiten, herritarren arteko loturak sendotzeko gunea bihurtuko da gunea. Bi zirkuituak jartzeko Arbizuko Udalak Nafarroako Gobernuaren despopulazioaren kontrako jardueretarako emandako 16.518 euroko dirulaguntza erabili du.



Ariketa fisikorako zirkuituan adin guztietako arbizuarrek elkartzen dira.

Gehiago

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak kontratatutako teknikari bat jarduera fisikoa nola egin erakusten hasi zaie arbizuarrei. Medikuak jarduera fisikoa agintzen dien pertsonen zuzendutako eskaintza da aipatutakoa. Erizainarekin koordinatuta egiten da, eta ariketa fisikoa egitea behar duten adinduek artatzea da helburua. Teknikariak, besteak beste, ariketak egiten erakutsi, zein postura edo mugimendu ekidin behar diren eta bestelakoak erakusten

ditu. Ostegunetan udaletxeko goiko solairuko gela batean eskaintzen du zerbitzua, 11:00etatik 14:00tara. Azken batean, mugikortasuna hobetu eta osasuntsu egoteko zerbitzua da martxan jarri berri dena.

Horrekin batera, Arbizuko Udalak osasunerako paseoen eskaintza egin du. Begirale batek dinamizatuta, ibiltari taldea asteazkenero, 16:00etan, udaletxetik abiatzen da pasieran ibiltzera. Duela bi aste hasi ziren horrelako paseoak egiten. Parte hartzeko aukera badago.



AMAYA OKINDEGIAK
ESKERTU NAHI DIZU
EGUNERO GUREKIN EGOTEA.
BIZITZEN ARI GAREN EGOERA ZEIN DEN JAKITUN,
GURE ESKURA DAUDEN SEGURITASUNEO
NEURRI GUZTIAK BETETZEN ARI GARA.

Zurekin 1964tik eta orain inoiz baino gehiago.

ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya

OKINDEGIA

• Irúña Hiribidea, 48
948 468 026
Zumalakarregi Plaza, 3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL
691 83 41 36
• Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ
• Postas, 33
945 148 368
• Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ
948 461 660
• Kale Nagusia, 4

OLAZTI
948 468 755
• Orreaga Kalea, 1

ARAIA
945 314 572
• Andoni Urrestarazu, 3

ALTSASU
678 323 403
• Irúña Hiribidea, 48
948 468 026
Zumalakarregi Plaza, 3
670 389 017
• San Juan Kalea, 50
948 562 185
• Otadiko Kristo Deuna, 19

Eskerrik asko!

Egin z bazk

Bazkidetu orain eta



948 564 275 | 618
admin@guaixe.

Belaunaldi berriek Sakanan
kalitatezko euskal hedabideez
gozatzen jarraitzeko.
Egin zaitez bazkide!

**ARITZ
GOÑI BELTZA**
ETXARRI ARANATZ
Langilea

Bertako informazioa
euskaraz eta etxean, des-
kontuak, bazkide zozketak...
Onurak besterik ez ditu!
Egin zaitez bazkide!

**OIHANA
HUALDE ULAYAR**
ARBIZU
Langilea

**GAIZKA
GOIKOE**
URDIA
Langilea

zaitez kide!

a jaso **oparitxo bat!**



882 675
eus



Bazkide naiz, Sakandarrei
buruzko berriak euskaraz
irakurtzea gustoko dudalako!
Euskara maite dudalako!

Bazkide izaten
Sakana euskalduntzen
laguntzen dut.
Animatu eta bazkidetu!



**AINARA
LOPETEGI LOPEZ**
LAKUNTZA
Langilea

Euskara eta bailarako
herrien informazioa jasotzea
maite badituzu...
Egin zaitez Guaixe
Fundazioaren bazkide!



**OCAÑA
ETXEA**
AIN
lea

**JUAN MANUEL
MORENO IRIBAS**
IRURTZUN
Jubilatua





Intsumiso talde bat Iruñeko kartzelako patioan, tartean sakandarrak. EKINKLIK.ORG

Intsumisio mugimenduari buruzko atzera begirakoa

Soldaduskari aurre egin zion mugimenduari lekukotzak entzun eta ikusteko aukera izanen da

OLATZAGUTIA

Aurten 20 urte beteko dira Espainiako Gobernuak, PP agintean zela, soldaduska kendu zuela. Ordutik gizonezko gazteek ez dute urte bat eman behar militarren eskuetan. Derrigorrezko zerbitzu militarren kontra Kontzientzia Objektzio Mugimendua hasi zen lanean eta kanpaina indartu zuela 30 urte bete dira. Soldaduskaren kontrako kanpainak aparteko erantzuna izan zuen ibarrean eta Olatzagutian. Horren guztiaren jakitun Olatzagutiko Udalak eta Liburutegiak historia memoria hurbila landuko duen Intsumisioaren Astea antolatu dute.

Olatzagutiko Liburutegiak bi astez Intsumisioari buruzko erakusketa hartuko du otsailaren 1etik 12ra, 16:30etik 20:30era. Han, batetik, Sakanako Antimilitarista Taldearen (GAS-SAT) dokumentuak, prentsa ebakinak, kartelak, argazkiak, eranskailuak, fanzinak eta bestelakoak ikusteko aukera izanen da. Horiek eta beste hainbat material Nafarroako Memoriaren Institutuak digitalizatutako funtsaren zati bat da eta, antza, Nafarroako Gobernuak udaberrian Interneten eskuragarri jarriko ditu.

Bestetik, Joxe Lacalleren 25 argazki ikusteko aukera izanen da. Etxauriko argazkilariak intsumisio mugimenduari berri ematen duen argazki liburua argitaratu berri du (Txalaparta, 2020) eta han jasotako irudietako batzuk dira ikusgai daudenak. Liburutegitik, Sakanako erakun-

de eta ikastetxei bisita gidatuak antolatzeko aukera emanen zaie, intsumisio mugimendua ezagutarazteko.

Topaketa eta dokumentala

Lacalle bera astearterako antolatu den topaketan izanen da. Eta berarekin batera intsumisio mugimenduko kide olaztiarrak eta Guaixeko erredaktore Alfredo Alvaro Igoa. Batzuk eta besteek urte haietako oroitzapenak eta esperientziak kontatuko dituzte asteartean, 19:00etan, kultur etxean. Izan ere, joan den mendeko 80ko eta 90eko hamarkadetan mugimendu antimilitarista handia izan zen Olatzagutian. Herrian dozena bat intsumisio izan ziren eta hainbat kartzela urte pilatu zituzten soldaduskari uko egiteagatik. GAS-SAT-ek antolatuta, kontzientzia eragotzenari buruzko Sakanako informazio bulegoa antolatu zuten bere kideek, eta hainbat urtez egon zen martxan. Mugimenduko kideen alde egin zuen gizarteak eta Olatzagutiko Udalak plaza bati Intsumisio plaza izena ematea erabaki zuen.

Intsumisioren astea despeditzeko otsailaren 7an, 19:00etan, Lander Garrok zuzendutako *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentala ikusteko aukera izanen da kultur etxean. Derrigorrezko soldadutza ezetz esan eta kartzela-zigor handia ordaindu zuten sei lagunen bizipenak kontatzen ditu ikus-entzunezkoak. Gonbidapenak udaletxean edo www.olazti.eus-en lor daitezke.

Emakume malgatxeei buruzko erakusketa

Madagaskarren aritzen den Agua de Coco fundazioak bere lanarekin segitzeko Altsasuko Udalaren dirulaguntza jaso du. Emakumezko malgatxeekin errealitatea online erakusketa batean ikusgai dago

ALTSASU

Altsasuko Udalak nazioarteko lankidetzat programak edo garapenerako laguntzak bultzatzeko 6.000 euro eman zituen joan den urtean. Agua de Coco fundazioak 816,33 euro jaso zituen Madagaskarren elikadura eta sentsibilizazioaren bidez haurrak COVID-19 gaitzaz babesteko. Indiako Ozeanoko irlan hainbat proiektu martxan ditu fundazioak eta guztietan zeharkako proiektua izanen da Altsasuko Udalak babestutakoa.

Madagaskarko Tulear probintzian Emakumezkoendako Arreta Zentro Integrala du fundazioak. Zentro horretan emakumezkoen matematikaren eta kontabilitatearen oinarritzko prestakuntza jasotzen dute, lan bat egiteko gaitu egiten dituzte, familia mantendu ahal izateko. Hezkuntzak, lan trebakuntzarekin batera, osasun arloa ere lantzen dute.

Izan ere, Tulearko distritu pobreenan, Ankalikan, emakumezkoen %49,20 eta 29 urte artean dituzte eta amak dira. Emakumezko horietatik %41 familiako guraso bakarra da. Gainera, auzo horretako emakumezkoen %73k haien lanagatik ez dute soldatarik jasotzen eta %78k osasun egoera txarra dute. Agua de Coco fundazioak emakumezkoen, amek



Madagaskarko emakumezkoen berri jaso daiteke erakusketan. LOBOLOPEZZ

eta haurdunek eta haien familiek pairatzen duten osasun, hezkuntza eta lan egoera larria hobetzeko lan egiten du Tulearko Ankalikan auzoan. Urtero 50-80 emakume inguru hartzen ditu bere prestakuntza eta osasun jardueretan, bai eta 100-160 adingabe inguru ere, 6 hilabetetik 5 urtera bitartean.

Zentro horrek hainbat jardura egiteko aukera ematen du, emakumeen ahalgintza esku-bideen ikuspegitik sustatzeko, eta emakumeen eta adingabeen osasun eta nutrizio egoera, hez-

kuntza gaitasunak, enplegarritasuna eta laneratzea hobetzeko.

Altsasuko Udalaren laguntzari esker Agua de Coco fundazioak egindako erakusketan Benito Pajares, Yeray Menendez, Lobo-lopezz, Jonathan Pisonero, Scar Lafiniarivo eta Rafa Cabalen argazkiak ikus daitezke. Haien irudiak bost ataletan daude banatuta: hezkuntza, nutrizioa, amatasuna, lana eta haurtzaroa. Aipatutako erakusketa lotura honetan ikus daiteke: <https://labur.eus/qn03l>.

Liburu berria kofradiarendako

Ezohiko topaketa egin zuen Bakakiku San Anton Kofradiak larunbatean. 306. aldia da anaiak urteko bilkura egin zutena. Oraingoan elizan. Mezaren ondoren egindako batzarrean kofradiarendako akta liburu berria erostea erabaki zuten. 900 euro pasa balio du zahar antza duen liburu bereziak. Kofradiak dagoeneko bi liburu beteak ditu.



Kamioiendako lehen bidesaria A-1 autobian

Nafarbide enpresa publikoak herrialdeko beste lau autobiatan halako bidesariak "pitteka" jarriko ditu. Irurtzongo Errepideak Zaintzeko Zentroak egoitza berria izanen du eta han egonen da Nafarbiderena ere

SAKANA

Bernardo Ziriza Perezek, Lurralde Kohesiorako kontseilariak, jakinarazi duenez, ibilgailu asuntentzako bidesariak "pitteka-pitteka" jarriko dituzte Nafarroako bost autobiatan. Zirizak aurreratu zuenez, urtea despeditu aurretik lehen bidesaria Iparraldeko Autobian (A-1) jarriko dute, hau da, Ziordia eta Etzegarate arteko 13 kilometroko ibilbideko punturen batean. Ondorengo urteetan Nafarbide enpresa publikoak kamioiendako bidesariak jarriko ditu Iruñea-Behobia errepidean (NA-121-A), Ebroko Autobian (A-68), Sakanako Autobidean (A-10) eta Leitzarango Autobidean (A-15).

Kontseilariak azaldu zuenez, errepideen erabileraren kanona arautzen duen Foru Lege proiektua bukatzen ari dira. Zirizak gaineratu zuen ere Nafarroako bide azpiegiturretan erabileragatik ordainketa ezartzeko kudeaketa sistemen ondoriozko bideragarritasunari eta lehiakortasunean duen eraginari buruzko azterlan bat egingen dutela. Horretarako, 350.000 euro bideratu ditu departamentuak.

Nafarbide, Irurtzun eta Arakil

Enpresa publiko hori arduratuko da kamioien bidesarien ezar-



Irurtzongo lotura gunea Etxeberitik. ARTXIBOA

penaren kudeaketaz. Departamentuak enpresa publikoaren estatutuak aurkeztu ditu, eta "ekarpenak jasotzeko irekia" dagoela gaineratu zuen Zirizak. Nafarbidek 3.000 euroko kapital soziala izanen du, hiru partaidetza sozialetan banatuta. Azkenik, kontseilariak jakinarazi zuen Irurtzongo Errepideak Zaintzeko Zentroak egoitza berria izanen duela eta han kokatuko dela Nafarbide. NA-2410 errepidearen eta Irurtzongo A-15 autobiaten lotura gunearen arteko lursail batean egonen da. Erre-

pidetik izanen du sarrera zentro berriak. Mapan begiratuta baldintza horiek betetzen dituen partzela Etxeberitiko markesina eta gatz siloaren ondokoa da.

Horrek guztiak esan nahi du Irurtzongo Trinitate kaleko 19. zenbakian departamentuak duen Errepideak Zaintzeko Zentroa lekualdatzetik gertuago dagoela. Nafarroako Gobernuaren lur sailak 7.301,77 metro karratuko azalera du eta Irurtzongo Udalak, aspaldi, herriarendako eskatzen du, bertan etxeak eta bestelakoak eraikitzeko.

ETB3 ikusteko aukerarik gabe segitzen dugu Sakanan

Nafarroako Gobernuak ez du erantzun Mendialdean euskarazko katea ikusi ahal izateko tramitea zertan den

SAKANA

Euskal Telebistaren 3. kateak haurrendako euskarazko eskaintza du. Nafarroa ia guztian ikus daiteke, Mendialdean izan ezik. Horregatik, ETB3 Nafarroa osoan ikusteko ekimena abiarazi zuten.

Hezkuntzak eta euskalgintzako Sakanako hainbat eragilek eskaera babestu dute. Eta, momentuz, aldarrikapenarekin bat egin dute Uharte Arakil, Arruazu, Ergoiena, Etxarri Aranatz eta Altsasuko udalek. Ekimenaren

sustatzaileek Nafarroako Gobernuarengana jo dute ere. Galdetu diote ETB3 Mendialdean ikusteko aukera zertan den, baina ez dute erantzunik jaso.

Nafarroan euskarazko haurrendako telebista katea gaur egun Iruñetik behera ikusteko aukera dago. Nafarroako Gobernuak Baztan-Bidasorako eta Sakanarako mutiplexadore bat eskatu zioten Madrili 2020an. Nafarroa osorako halako bat eskatzea ere ez dute baztertu, zailtasunak aitortu arren.



ALTSASU
IORTIA KULTUR GUNEA

ARBIZU
LONBRENDENDA

BAKAIKU
ESTANKOA

ETXARRI
ARANATZ
BELEIXE IRRATIA

IRURTZUN
UDALETXEA

LAKUNTZA
OGIBERRI OKINDEGIA

LIZARRAGA
UDALETXEA

OLAZTI
UDALETXEA

UHARTE
ARAKIL
UDALETXEA

URDIAIN
UDALETXEA

ZIORDIA
UDALETXEA

Egin zaitez bazkide!
Eta etxean jasoko duzu!



948 564 275 | 618 882 675
admin@guaixe.eus



Gobernuak kirol lehiaketak hasteko data jarri du

KIROLDEGIA Otsailaren 12tik aurrera hasiko dira kirol txapelketak, beti ere pandemiaren bilakaeraren arabera. Modu mailakatuan hasiko dira eta kirol federazioek segurtasun neurri guztiak biltzen dituen protokoloa igorri beharko dute

Nafarroako kirol federazio guztiak lanean daude buru belarri, euren txapelketetako egutegiak ontzen eta, azkeneko aldaketarik ez bada, otsailaren 12tik aurrera hasiko diren lehiaketak eta txapelketak prestatzen.

Izan ere, otsailaren 12tik aurrera hasiko dira, modu mailakatuan, kontaktu edo aurkaritza kiroleko Nafarroako lehiaketa ofizialak. Nafarroako Kirolaren Institutuak (NKI) lehiaketa horiek hasia baimendu du, eta COVID-19 pandemiaren bilakaeraren menpe egongo dira. NKIko zuzendari kudeatzailearen ebazpenean jasotzen dira kontaktu edo aurkaritza kiroleko modalitateen lehiaketak abian jartzeko bete beharreko baldintzak. Taldeakoen artean, futbola, areto futbola, saskibaloia, eskubaloia, errugbia, hockeya, patinetako hockeya eta waterpolo sartzen dira; banakakoetan, berriz, borroakoak eta arte martzialak.

Pandemiaren arabera

Txapelketak hasteko egunak aldatu edo bertan behera utzi ahal izango dira, egoera epidemiologikoaren eta osasun agintariek har ditzaketen neurrien arabera. Hori dela eta, lehiaketak hasi ondoren, aldi baterako edo behin betiko eten ahal izango dira.



Lagun Arteak eta Altsasuk 2019an jokaturako partida. ARTXIBOA

Txapelketak modu mailakatuan hasiko dira. Taldeko modalitateetan, seniorrak eta juniorrak otsailaren 12tik aurrera hasiko dira; kadeteak otsailaren 19tik aurrera; haurren kategoria otsailaren 26tik aurrera; eta gainerako kategoriak martxoaren 5etik aurrera. Banako kirolei dagokienean, kategoria absolutuak otsailaren 12an hasi ahal izango du; juniorrak 19tik aurrera; kadeteak otsailaren 26tik aurrera; haurren kategoriak martxoaren 5etik aurrera; eta gainerakoak martxoaren 12tik aurrera.

Bestalde, entrenamendu osoak egin ahalko dira bi talde ezberdinen artean, lagunarteko partidak, adibidez.


Nafarroako kirol federazioek osasuna babesteko neurri guztiak biltzen dituen protokoloa aurkeztu beharko dute NKIari. Eta kirol talde edo klub bakoitzak bere COVID-19 arduraduna izendatu beharko du; pertsona hori arduratuko da klub bakoitzean segurtasun eta osasun neurriak betearazteaz. Federazio bakoitzeko arduradunarekin koordinatuko dira.



LOINTEK GERNIKA

Naiara Diez Eurokopan aurrera

SASKIBALOIA Naiara Diez kapitain altsasuarraren Gernika Lointek taldea Espainiako Emakumezkoen Ligan murgildu da atzera ere aurreko astean Eurokopako final zortzirenatarako sailkatu eta gero. Errumaniako Seps taldea izango du aurkari final zortzirenetan, martxoan, partida bakarrera. Sailkatu izanagatik "oso kontentu" dago altsasuarra.



ARTXIBOA

Miguel Andres Galarzari agur

BORROKA LIBREA Aurreko ostiralean zendu zen Miguel Andres Galarza Galarza borrokalari, 88 urte zituela, COVID-19 gaitzak jota. Bere garaian borrokalari profesional handia izan zen urdiaindarra. "El Leon Navarro" ezizenez ezaguna, borrokalari indartsu eta bikaina, hainbat borrokalidan eta txapelketan garaipen garrantzitsuak lortu zituen.

Ongi jokatzearekin ez duela balio dio Imanol Arregik

ARETO FUTBOLA Levanteren kontra azken minutuan jasotako bi golengatik galdu zuen Osasuna Magnak

Osasuna Magna Xotak sailkapenean 2. postuan dagoen Levante hartu zuen ostiralean Anaitasunan, 450 zaleren aurrean. Hirutan aurreratu ziren nafarrak baina zoritxarrez azken minutuan bi gol sartu zituen

Levantek eta 3 puntuak eskuratu zituen, 3 eta 4 irabazita. Xotak modurik krudelenean galdu zuen, eta "kolpe latza" jaso zutela aitortu zuen Imanol Arregik. "Uste dut eurek ez dutela irabaztea merezi, baina hemen

kontua ez da merezi izatea, garaipena lortzea baino, eta beste behin garaipena eskuetan izan dugu, baina ihes egin digu. Ongi jokatzearekin ez du balio, irabazi beharra dago eta ez dugu egiten. Hau sekulako kolpea da" adierazi zuen entrenatzaileak.

Ildo berean hitz egin zuen Asier Llamas atezain eta bigarren kapitainak. "Taldea animoz jota dago, baina egoerari buelta ematera aterako gara" azaldu zuen atezain irurtzundarrak. Osasuna Magna sailkapenean 11. pos-



Levanteren kontrako partida. XOTA

tuan dago (18 puntu) eta asteburuan atsedean hartuko du.

Bi taldeen arteko "tentsioa jaisteko" lan egingo dute

Osasuna Magna Xotari eta Ribera Navarrari bi klubetan zaleen arteko "tentsioa jaisteko" lan egitea eskatu zien Nafarroako Gobernuak astelehenean Nafar Kirol Institutuan egindako bileran. Bi klubetako presidentek "klubetan zein zaleen arteko errespetuzko giroa sortzeko" lan egiteko konpromisoa hartu zuten.



Izaskun Beunza 2018ko Oinez Mendi Duatloian erreleboko txanda hartzen. Dantzalekuk hartuko du datorren duatloi krosa. ARTXIBOA

Duatloi proba bat beharrean, bi

DUATLOIA Sakana Triatloi Taldeak otsailaren 21ean Altsasuko I. Duatloi Krosa antolatu du Dantzalekun, Nafarroako Txapelketa izanen dena, eta martxoaren 20an Altsasuko Duatloia, Ibarrean jokatu dena. Aurki zabalduko da izena ematea

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Joan zen urtean martxoaren 28an jokatzekoa zen X. Altsasuko Duatloia bertan behera geratu zen COVID-19 pandemiagatik. Baita Arbizuko Duatloia ere. Baina aurtun, pandemiak uzten badu behintzat, bi probak antolatuko dira. Eta ez bi proba horiek bakarrik. Izan ere, aurtun duatloi lasterketa bat beharrean, bi antolatuko ditu Sakana Triatloi Taldeak Altsasun: otsailaren 21ean Dantzalekun jokatu den Altsasuko I. Duatloi Krosa eta martxoaren 20an Ibarrean jokatu den Altsasuko Duatloia.

"Otsailaren 7rako Tuterako Duatloi Krosa zegoen iragarritan, Nafarroako Duatloi Txapelketa izango zena. Baina azken momentuan, pandemiagatik beldurrez, atzera bota eta ez dute antolatuko. Idoia Valencia altsasuarra Nafarroako Triatloi Federa-

zioke kidea da, eta proba hemen antolatzea proposatzeko hots egin zigun. Berak zioen Dantzaleku toki oso polita dela Nafarroako Duatloi Kros Txapelketa bertan egiteko. Azkenean animatu gintuen eta otsailaren 21ean Dantzalekun I. Altsasuko Duatloi Krosa antolatuko dugu, Sprint distantzian, Nafarroako Duatloi Kros Txapelketa izanen dena" azaldu du Sakana Triatloi Taldeko Sergio Garcia de Eulatek.

Aste bat lehenago, otsailaren 14an, Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa hartuko du Dantzalekuk. "Horrek ere Altsasuko

"HILABETE BATEAN 3 PROBA IZANGO DITUGU ALTSASUN; HORI OSO GARRANTZITSUA DA" SERGIO G. DE EULATE

Duatloi Krosa antolatzeraz animatu gintuen. Izan ere, atletismo lasterketarako Dantzaleku Sakanaekin batera prestatuko dugun zirkuitua gero Duatloi Krosean atletismo segmenturako erabiliko duguna izango baita" gaineratu du Garcia de Eulatek.

Nafarroako lehenengo probak

"Hilabete batean hiru proba izango ditugu Altsasun: otsailaren 14ko Nafarroako Kros Luzea, otsailaren 21eko Nafarroako Duatloi Txapelketa, eta martxoaren 20ko Altsasuko Duatloia. Hori, une honetan, oso garrantzitsua da. Toki askotan probak bertan behera uzten ari dira, baina Nafarroako Gobernuak kirolaren aldeko apustua egin du, eta eskatutako arauak beteaz gurean aurrera ateratzea garrantzitsua da bai kirolerako eta baita kirolariendako ere. Gurea Nafarroan

2021ean jokatu den lehen duatloi lasterketa izango da, eta krosa urteko lehena izatea baliteke ere" nabarmendu du Sakana Triatloi Taldeko kideak.

COVID-19 dela eta, neurri zorrotzak bete beharko dira. Arau horiek segiz, probak herri guzietatik atera behar dira, nola baiteko burbuila bat sortzeko. Ikusleak ezingo dira boxetara hurbildu, segurtasuna bermatzeko, eta soilik korrikako eta bizikletako tartetan egon ahalgo dira, distantziak mantenduz.

Altsasuko I. Duatloi Krosa

Otsailaren 21eko goizeko 9:30ean abiatuko da Altsasuko I. Duatloi Krosa, Dantzalekuko pistetatik. Boxak goiko futbol zelai zaharrean jarriko dira, itxita. Esan bezala, ibilbidea aste bat lehenago Nafarroako Kros Luzerako prestatutakoa izango da. Hasieran duatletek 4 km osatu beharko dituzte Dantzalekuko paraje zoragarrietan barna, gero bizikleta hartu eta San Pedro zelairantz joko dute, 12 km osatzeko, eta bukaeran 2 km egin beharko dituzte. Proba Nafar Kirol Jolasetarako ere baliagarria da, baina Nafarroako Gobernuak soilik kadetei eta jubenilei eman die aritzeko baimena.

Proba erreleboka egiteko aukera izango da ere, bikoteka. Hau da, batek korrikako segmentua egingo du eta besteak bizikletakoa. "Aukera hau proba herrikoiagoa egiteko eskaini dugu, sakandar gehiago animatu daitezten eta goiz polit bat pasa dezaten" azaldu du Sergio Garcia de Eulatek.

Ibilbidea wikiloc-en

Sakana Triatloi Taldeak bere Facebook orrialdean ibilbidearen irudiak jarri ditu ikusgai, eta wikiloc-en ibilbidea kontsultatu daiteke. "Mendi bizikletan ibiltzeko eta mendian korrika egiteko paraje zoragarria dugu gurean. Nafarroan krosa egiteko leku onena hau dela esaten dute Nafarroako Atletismo Federazioan. Etxean zer dugun badakigu; beraz, ibilbidea oso polita izango da, goiz ederra pasatzeko modukoa" zehaztu du Sergiok.

"NAFARROAN KROSA EGITEKO LEKU ONENA HAU DELA ESATEN DUTE FEDERAZIOAN" SERGIO G. DE EULATE

Lasterketetan aritzeko gogoz

Kirolariak lasterketetan aritzeko irrikaz daudela aipatu du Garcia de Eulatek. "Jendea galdezka dabil, ea noiz eman daitekeen izena, ea kanpotik etor daitezkeen... baina Nafarroako proba denez, ez Estatu mailakoa, soilik nafarrak aritu ahalgo gara. Jendeak kirola egiten du, baina entrenatzera ateratzera gehiago kosta egiten da, lasterketen motibazio hori falta delako. Gure lasterketak hor daudenez, anima gaitezen".

10 segunduro 3 duatleta

Lasterketan ez dira duatleta guztiak batera aterako. Dantzalekuko pistatik hirunaka aterako dira duatletek, 10 segunduro hirur. Horrela guztien arteko distantzia bermatuko da. Erlojupeko bat bezala izango da. Hasieran maskara jantzita aterako dira kirolariak, eta ondoren kendu egingo dituzte. Bizikleta segmentuan ezingo da aurrekoaren gurpiletik lotuta joan eta ez dira hornidura guztiak egongo. "Arau hauek lehiaketa itsusiago egiten dute baina egingarriak dira, distantziak mantentzeko sortuak. Bizikletan norberak bere ur botila darama eta, hortaz, ez da hornidura gehiago behar izango. Lasterketak egotea, eta bertan parte hartu ahal izateko aukera izatea, hori da garrantzitsua" dio Garcia de Eulatek. Juan Luis Maiza eta Sakana Triatloi Taldeko gaitzatzeko kideekin antolakuntza lanean dabil buru belarri, baina Altsasuko I. Duatloi Krosean aritzeko denbora aterako du. "Guretzat lasterketa hauek oso politak dira, eta gogotsu nago" gaineratu du.

Arbizun ere

Altsasuko biak, martxoaren 27an Arbizuko Duatloia... badirudi gutxika proba gehiago etorriko direla. "Hori espero dugu. Ilusio horrekin gabiltza entrenatzen. Lasterketak faltan botatzen ditut, lasterketako lagunak, igandeak, bidaiak..." aitortzen du Sergiok.

Izena ematea Nafarroako Triatloi Federazioan

Altsasuko I. Duatloi Krosean izena ematea aurki zabalduko da Nafarroako Triatloi Federazioan (www.navarratriathlon.com) eta baita rockthesport.com webgunean ere. Gehienez ere 125 duatleta ariko ahal izango dira bakarka, eta 15 bikote erreleboka.

Maidar Betelu Ganboa ARRUAZU

Ilbeltzaren 17an Garfe enpresak 2021ko pilotarien aurkezpena egin zuen. Bertan zegoen Iosu Bergera Azketa. Atzelari arruazuarak Errioxako enpresan laugarren urtea egingo du eta, aldi berean, afizionatuen denboraldiari ekin dio Irurtzun klubean.

Garfe enpresan pilotari profesionala zara baina aldi berean Irurtzun afizionatuen taldean jarraitzen duzu. Arbizuko Aldabide Kirol taldean hasi nintzen pilotan. Han egon nintzen 19 urte bete nituen arte, Lino Arrutirekin eta Joxe Mari Berastegirekin. Bertatik Irurtzun klubera joan nintzen eta Migel Berazarekin jarraitu nuen lanean, gaur egunera arte. Eta bai, bi taldetan nago. Irurtzongo klubarekin bereziki Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketan, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketan eta Berria Txapelketan. Gainontzeko guztian Garferekin aritzen naiz.

Afizionatuen mailan palmares bikaina duzu. Munduko txapelduna zara, Espainiako txapelduna eta txapeldunordea, Euskadiko txapelduna, Euskal Ligako txapelduna... Afizionatuena maila gogorra da, agian guk uste baino gogorragoa. Txapelketa batzuk irabaziak dauzkatz; Munduko Kopa bat irabazi nuen, Europako txapelketa bat ere, Espainiako Txapelketetan finalak irabazi eta galdu ere egin izan ditugu, Euskal Herriko Kluben Artekoa ere irabazi dugu... Afizionatuen mailan geroz eta lehiakortasun gehiago dago, baita profesionaletan ere. Nik, pilotaz aparte, lan egiten dut; Indar enpresan informatikoa naiz. Guztia uztartzea geroz eta zailagoa da, baina momentuz eusten diot eta pozik.

Aspe eta Baiko bezalako enpresetara salto egitea zaila da?

Bai, maila handia dago. Beste salto bat da, eta zaila da. Sekula ez dut nire burua estutu enpresa horietara heldu ahal izateko. Besterik gabe, ez da etorri, eta, egia esan, ez diot buelta gehiegirik ematen. Nik nire lana dut Indarren eta gero pilotan aritzen naiz Irurtzunen eta Garfen.

Zenbat urtera arte izan zaitezke afizionatuen mailako pilotaria?

Afizionatueta nahi duzunera arte egon zaitezke. Orain 30 urte dauzkatz eta momentuz ongi sentitzen naiz; horrela nagoen bitartean, aurrera. Baina ikusten badut motibazio falta dudala edo

"Ahalik eta mailarik onena ematea, hori da nire erronka"

IOSU BERGERA AZKETA PILOTARIA

PILOTA Garferen Binakako Txapelketan hastear dago Arruazuko atzelaria eta Irurtzun klubarekin Espainiako Kluben Artekoari ekin dio, gogotsu



Iosu Bergera Azketa. GARFE

entrenamenduetan gogogabe edo alfer hasten naizela, alde batera utziko dut eta kitto.

Nola da zure egun arrunt bat?

Lanaldiz atituia dut. Arratsaldean, lanetik ateratzen naizenean, asteartetan eta ostegunetan Irurtzongo frontoira noa entrenatzera, eta gainontzeko egunetan ariketa fisikoa lantzen dut nire kontu edo koinatuarekin, Jon Mendietarekin. Eta asteburutan beti partidak daudenez, frontoietan ibiltzen naiz. **Irurtzun pilota klub garrantzitsuenen artean dago, bai bere ibilbideagatik eta baita emaitzak ikusita ere.**

Nafarroan goian dauden klubaren artean -Ultzama, Oberena...- maila handia da, baina Irurtzunen zorte handia dugu gure taldean pilotari handiak ditugulako. Hori asko nabaritu da azkenaldian. Azkeneko lau zapabost urtetan Espainiako Kluben Arteko Txapelketan beti hiru hoberenen artean egon da Irurtzun. Oso pilotari onak daude gurean: Alberto Ongay eta Julen Retegi profesional ohiak, Azanza... eta atzetik Sakanako gazteak datoz, eta maila polita hartzen ari dira: Aaron Arbizu, Urtzi Nazabal,

"LANA ETA PILOTA UZTARTZEA KOSTA EGITEN DA, BAINA MAILARI EUSTEN DIOT ETA POZIK"

Josu Olaetxea, Lazkoz... talde polita dator eta badirudi mailari eutsi egingo diotela. Irurtzun kluba osasuntsu ikusten dut. Oso pilotari onak daude, eta edozein klubean aurka jokatu dezakegu.

Nafarroako Pilota Txapelketetan ez al duzu parte hartzen?

Irurtzun klubarekin hartzen dudana konpromisoa Espainiako Kluben Arteko Txapelketa, Euskal Herriko Kluben Arteko Txapelketa eta Berria Txapelketa jokatzekoa da. Gainontzekoa Garferekin egiten dut. Nafarroako Txapelketak iraila eta urria aldera izaten dira, eta nik abuztu eta irailean Garferekin partida asko jokatzen ditudanez, urria eta azaroa atseden moduan hartzen ditut eta horregatik ez naiz Nafarroakoetan aritzen.

2020an partida asko geratu ziren bertan behera, pandemiagatik. Aurtengorako zein aurreikuspen daude?

Aurtengo aurreikuspena hobea da. Nahiz eta ikuslerik gabe jokatu, partidak grabatuko dituzte, telebistan eskaintzeko, eta 10 jaialdi inguru bermatu dizkigute. Gero ikusi beharko da uda aldera zein den pandemiaren egoera. Ea ikusleek frontoietara joatea duten eta poliki ohiko errutina hartzen dugun.

Garfek Binakako Txapelketa aurkeztu du eta Elizalderekin osatuko duzu bikoa. Noiz hasiko zarete?

Jaialdiak itxita daude, baina ez dituzte datak konfirmatu. Normalean astebete lehenago esaten digute partida noiz jokatuko dugun. Iaz Gontzal Urionarekin jokatu nuen txapelketa eta nahiko ongi joan zitzaigun, irabazi genuen, baina aurrean ez dut Elizalderekin asko jokatu. Ea elkarrekin saio pare bat egiten ditugun eta txukun hastea dugun.

PCR probak egin behar izaten dituzue?

Tarteka. Nik bizpahiru egin ditut jada.

Bi taldetan pilotari bikainez inguratuta zaude. Zer nolako giroa duzue?

Irurtzunen maila handia egoteaz gain, pilotarien artean giro bikaina dugu. Eta hori da pilotan segitzeko nire beste arrazoietakoa bat. Nik pilotan lagunak ditut, eta gustura ibiltzen gara entrenatzen. Giro ona badago gehiago entrenatzen duzu, gusturago joaten zara eta hori emaitzetan islatu egiten da.

Zein da zure aurtengo erronka?

Maila polita ematea, ahalik eta hoberena, eta hor mantentzea.



Iosu Bergera, pilotak aukeratzen. UTZITAKOA

Eta egiten dudanaekin disfrutatzea, jakina.

Espainiako Kluben Arteko Txapelketari ekin dio Irurtzune. Zer moduz hasi zarete?

Bi jardunaldi jokatu dira. Nik Binakakoan jokatzen dut, atzelari, eta 1. jardunaldia eskua nahiko gaizki nuela bukatu nuen. Horregatik asteburuan atseden hartu nuen eta Aaron Arbizuk jokatu zuen nire ordeaz, Alberto Ongayekin batera. Galdu egin zuten, baina beno, txapelketa hasi besterik ez da egin. Txapelketa luzea da; 6 jardunaldi dira, joanekoarekin eta itzulikoarekin. Hortaz, badugu buelta emateko tartea. Buruz Burukoan Urtzi Nazabalek jokatu ditu bi jardunaldiak, eta biak irabazi ditu.

Euskal Herriko Kluben Arteko egungo txapeldunak zarete, 2019ko txapelketa irabazi zenutela eta 2020koan finalera iritsi zinetelako. Finala ez da jokatu, pandemiagatik.

Bai, Euskal Herriko Kluben Artekoan bertan behera utzi zen 2020ko finala. Nahiz eta finala ez jokatu, sariak banatu ziren. Uler-tu nuenagatik ez dira 2020ko finalak jokatuko eta 2021eko edizioa normal hastea da aurreikusten dutena.

Beste kiroletan aipatzen denez, Iruñeko taldeek askoz eta jokalaririk eta baliabide gehiago izaten dituzte. Pilotan ere hala izaten da?

Ez nuke hori esango. Sakanan, Baztanen, Ultzaman... pilotari asko atera izan dira, bai profesionaletan eta baita afizionatuetan ere. Baina nik ikusten dudana da, orokorrean, jende gaztea pilotan gutxiago dabilela; orain klub eta pilotari gutxiago daukela iruditzen zait. Lehen edozein herritan pilota klub bat zegoen

eta hainbat haur eta gazte jokatzen. Eta hori gutxitzen joan dela iruditzen zait.

Batzuetan boladak izaten dira.

Agian moda kontua ere izan daiteke. Dena den, nahiz eta haur asko pilotan hasi, gero zenbat irauten duten ikusi behar da. 14 eta 16 urte artekoa adin nahiko kritikoa izaten da kirol batean jarraitzea edo ez erabakitzeak. Ikasketek dedikazio gehiago eskatzen dute, sarritan ez zara guztira iristen eta aukeratu beharra dago.

Nola duzu eskua, osatu zaizu?

Hor dabil. Aierdi fisioterapeutekin eta Logroñoko Pedrokekin ibili naiz, eta ea poliki sendatzen den, denboraldiarekin jarraitzeko gogotsu bainago. Denbora asko egon gara geldia, eta orain irrikaz nago.

Kuriositatez, zenbat denbora eman duzue takoak jartzen?

Nik hiru ordu laurdenetan edo ordu erdi batean jartzen ditut takoak partida baten aurretik. Baina denetarik ikusi dut. Ikusi ditut 20 minututan jarriak dituzten pilotariak eta ordu eta erdi behar dituztenak. Takoak jartzea arte bat da eta bakoitzak bere moduan jartzen ditu.

Goizetan lan egin, arratsaldetan entrenatu, asteburutan partidak... etxekoek gutxi ikusiko zaituzte.

Egia esan, beti nabil handik hona. Gertu jokatzen badut gurasoak partidetara joaten dira, baina urrun direnean beste pilotariekin edo bakarrik joaten naiz.

Ea eskua osatu eta pilotaz gozatzen duzun. Zeren, azkenean, hori da, ezta? Gustura egotea...

Bai, hori da. Lesioek errespetatzen badute, galdu edo irabazi, baina gutxienez pilotaz disfrutatzea.

Lidergoa sendotzera, eta bigarren puntua lortzera

PILOTA Binakako hasierako ligaxkako 5. jardunaldian, Zabaletak eta Elezkanok lidergoa sendotu nahi dute eta Ezkurdia-Galarzak eta Jaka-Martijak, ordea, bigarren puntua lortu. Martijak atzo zuen erabakitzeak aritzeko moduan dagoen ala ez

Binakako Txapelketako ligaxkako 5. jardunaldia jokatuko da asteburuan. Elezkanok eta Zabaletak lidergoa sendotu nahi dute, eta Ezkurdia-Galarzak eta Jaka-Martijak, aldiz, euren bigarren puntua eskuratu nahi dute, txapelketa bideratzeko.

Zabaletaren eta Albisuren lehia Elezkanok eta Zabaleta txapelketako jaun eta jabeak izaten jarraitzen dute. Orain arte jokatutako lau partidak maisuki irabazi dituzte, lezioa emanez. Astelehenean, Gernikan, sendo aritu ziren Bengoetxea VI.aren eta Arangurenen kontra, eta 14 tantotan utzi zituzten. Beste behin, Jose Javier Zabaleta onena izan zen. Etxarrengo atzelaria eta Elezkanok gainontzeko pilotariak baino koska bat gorago daude une honetan, eta larunbatean, txapelketako 5. jardunaldian, Peña II.a eta Albisu izango dituzte aurkari non eta Iruñeko Bomboneran (17:15, ETB1), Zabaletaren Labrit kuttunean. Pilotazaleak egungo bi atzelari indartsuenetakoen arteko lehiaz gozatzeko irrikaz daude.

Ezkurdiak eta Ladisek bide onean jarraitu nahi dute

Ezkurdiak eta Ladis Galarzak konfiantza handia eman dien garaipen lortuz zuten larunbatean Tolosan. Peña II.a ordezkatu zuen Zubizarretari eta Albisuri 22 eta 14 irabazi zieten eta txapelketako euren lehen puntua lortu zuten. Lehen zatian ikusgarri aritu ziren; Ezkurdiak sekulako abiadura eman zion pilotari, Zubizarreta jokoz kanpo utziz, eta Ladisek ongi eutsi zion Albisuri. 16 eta 1 ihes egin zuten nafarrek. 18 eta 14 gerturatu ziren Zubizarreta eta Albisu, baina euren lehen puntua kosta ala kosta lortu nahi zuten Ezkurdiak eta Ladisek, eta irabaztea eta lasaitasun handia eman dien puntua eskuratzeko lortu zuten.



Ezkurdiak eta Ladis Galarzak garaipen garrantzitsua lortu zuten. J.A. GOÑI

LEHEN GARAIPENAK BEHAR BEHARREZKOA ZUTEN KONFIANTZA EMAN DIE LADISI ETA EZKURDIARI

Gaur, ostirala, Ezkurdiak eta Ladisek Artola ordezkaturako duen Oinatz Bengoetxea eta Aranguren izango dituzte aurkari Mallabian (22:15, ETB1). Asteazkeneko material aukeraketa bertan behera geratu zen hezetasunarengatik, eta gaur, partida baino lehen egingo dute aukeraketa. Josebak eta Ladisek euren bigarren puntua lortu nahi dute, eta Oinatzek eta Arangurennek, berriz, hutsik duten poltsikoa lehen puntuarekin bete. Puntuen faltan dauden bi bikoen arteko lehia izanen da, eta partida estua espero da.

Jakak eta Martijak bigarrena nahi dute

Erik Jakak eta Julen Martijak Aimar Olaizola eta Beñat Rezusta izanen dituzte aurkari igandean Bizkaian (17:00, ETB1). Martija ez zen asteazkeneko material aukeraketara hurbildu. Jakina

denez, Etxeberriko atzelariak aurreko jardunaldian mindutako eskuin eskua sendabidean jartzeko atseden hartu zuen, eta atzo erabaki beharra zuen partida jokatzeak moduan dagoen ala ez. Aurreko jardunaldian Bikuñak ordezkatu zuen eta berak eta Erik Jakak 17 eta 22 galdu zuten Urrutikoetxearen eta Imazen kontra. Jakak asteazkenean adierazi zuenez "Martija lehenbailehen osatzea eta txapelketara bueltatzea da espero eta nahi dudana". Ea horrela den.

Nolanahi ere, Jakak eta Martijak partida oso zaila dute Olaizolaren eta Rezustaren kontra. Azken jardunaldia Altunaren eta Mariezkurrenaren kontra galtzetik datoz Olaizola eta Rezusta, eta sailkapenaren buruan jarraitzeko igandeko partida irabazi beharrean daude. Jakak eta Martijak puntu bakarra dute eta bigarrena lortu nahi dute, sailkapeneko beheko postuetatik gora egiteko. Beraz, asko dago jokoan eta lehia estua izanen da.

Bukatzeko, astelehenean, Amezketan, Urrutikoetxearen eta Imazen kontra ariko dira Altuna III.a eta Mariezkurrena II.a (22:30, ETB1).

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 29

ALTSASU Gazte agenda:
Sexgunea.
17:00etatik 21:00etara,
Intxostiapunta gazte gunean.

ETXARRI ARANATZ *Viejos mundos nuevos* Giza Eskubideak eszenara antzezlanaren emanaldia. 6 euro.
09:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Azken ostirala.
Euskal Presoak Euskal Herrira

elkarretaratzea.
19:45ean, udaletxearen aurrean.

SAKANA Azken ostirala. Irurtzun, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz eta Olazti. Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 30

ARBIZU Errepresioari stop.
Elkartasuna Rubenekin manifestazioa.
17:00etan, plazaatik.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Manual de la buena esposa gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 29: 19:00
Igandea 31: 19:30

Las brujas (de Roald Dahl) familiarreko filmaren emanaldia
Igandea 31: 17:00

Salvaje gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 4: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Deseando amar zineforum filmaren emanaldia
Igandea 31: 19:30

El profesor de persa zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 4: 19:00



PEOPLE ART FACTORY

ALTSASU #AltsasukoakAske
Guztien artean egin dugu!
Testigantza erakusketa.
Urtarrilaren 19tik otsailaren 7ra. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:00etara, larunbatetan ikuskizuna hasi aurretik eta igandetan 16:00etatik 20:30era. lortia kultur gunean.

ALTSASU Emakume
malgaxearen indarra erakusketa birtuala.
Abenduaren 29tik martxoaren 29ra. People art factory webgunean, <https://labur.eus/EmaMalgaxe>.



JOXE LACALLE

OLAZTI Intsumisioaren astea.
Joxe Lacalle argazkilariaren argazkiak eta Sakanako Talde Antimilitaristaren dokumentazioa.
Otsailaren 1etik 12ra. Liburutegian.

ALTSASU Gazte agenda:
Tramankuluren Berdintasunaren escape rooma. Doan.
17:00etan, 18:30ean eta 20:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Nafarroako VII. Tritikitixa Jaialdia.
17:30ean, lortia kultur gunean.

LAKUNTZA Modus Operandi taldearen kontzertua.
19:00etan, kultur etxean.

IGANDEA 31

ETXEBERRI Aixitan auzolana. Zakuak erdibidean daude eta azken zatia falta da igotzeko. Zailtasuna kontuan hartuta, egoera fisiko onean egotea komenigarria da. Gosaria Arakilgo Udalak jarriko du.
09:00etan, plazaatik.

OLAZTI Laenananaranja konpainiaren *Kontu kantari* ikuskizuna.
3/3,5 euro.
17:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 1

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 2

OLAZTI Intsumisioaren astea.
Solasaldia: Joxe Lacalle argazkilaria *Si te mandan una carta* liburuaren egilea, Alfredo Alvaro Igoa Guaixeko erredaktore burua eta Olaztiko intsumisoak.
19:00etan, kultur etxean.

ASTEAZKENA 3

ALTSASU Erika Elizariren solasaldia *Zendabalitz* eleberrian oinarrituta.

Sakanako Mankomunitateak eta AEK-ek antolatuta.
09:45ean, lortia kultur gunean.

HIRIBERRI Sakanako emakumezkoen eta gizonezkoen arteko I. Berdintasun Plana. *Arakilen zer?*
18:30ean, kontzejuan.

ALTSASU Pello Reparazen solasaldia.
Sakanako Mankomunitateak eta AEK-ek antolatuta.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 4

IRURTZUN Santa Ageda. Aizpeak antolatuta.
18:00etan, plazan.

Bazkide
202
zoz
keta


URTARRILEKO SARIAK

1. SARIA

Nerea Carrera Arenaza (Etxarri Aranatz)

2. eta 3. SARIAK

Daniela Alonso Giordana (Irurtzun)
Mikel Lizarraga Galarza (Urdiain)
Irantzu Lopetegi Goldarazena (Lakuntza)



CARPINTERÍA DE P.V.C.



Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

Maritxu
Gabirondo Lecea


"Zure falta asko somatuko dugun arren,
lasai gaude, aitonaaren urtebetetzea
ospatzeko hirurak elkartu zaretela badakigulako"

Etxekoak, familia eta lagunak

OROIGARRIA

Vicente Zelaia
Agirrebengoa

III. urteurrena



Erreza izan zen zu maitatzea, ezinezkoa
ordea zu ahaztea. Beti gure bihotzetan

Maite zaitugu

Etxekoak
Altsasu

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALDU

Bi garaje plaza salgai
Etxarri Aranatzan, oso
prezio onean. Deitu 661
186 576.

LANA/NEGGIOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Sakanako Mankomunitateak hondakin zerbitzuaren beharrak betetzeko lan polita osatu nahi du: Peoi gidaria, peoia, pala gidaria eta antzeko lanak egiteko pertsonak bilatu nahi ditu. Oposizio lehiaketa bat egingo da; batetik merezimenduak ebaluatuko dira eta bestetik test motako galdera zerrenda eta suposizio teoriko praktikoa bat egin beharko dira. Aurkezteko bideak: Mankomunitateko bulegoetan (Uriz kalea 32, Lakuntza), erakundearen egoitza elektronikoaren bidez (<https://sedelectronica.sakana-mank.com/es/index.aspx>) edo posta ziurtatuaren bidez. Aurkezteko epea 2021eko otsailaren 8an, 14:00etan, amaituko da.

OHARRAK

Lakuntzako Gazte Asanbladaren zozketako zenbaki sarituak: 1. saria 080 (ordezkoa 591), 2. saria 436 (ordezkoa 393) eta 3. saria 196 (ordezkoa 600). Zenbaki saridun bat izanez gero idatzi haren sare sozialetara edo la-kuntzazogazteasanblada@gmail.com helbidera.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daiteke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoen; Etxarri Aranatzan Kaxeta liburu dendan eta Altsasun Arkatz liburu dendan. 15 eurotan dago salgai.

Intxostiapuntako ordutegiak: Gaztegunea astelehenetik ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etatik 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea astelehenetik ostiralera 07:30tik 15:00etara eta asteazkenetan 07:30tik 12:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Tfnoak

948 564 785 / 608 617
778, intxostiapunta@altsasu.net + gazteria@altsasu.net

LEHIAKETAK

Liberoamerika argitaletxearen literatur lehiaketa: Idazle gazteen lanak argitaratzeko xedearekin sortu dute deialdia. 30 urtetik beherako pertsonen parte har dezakete, edozein delarik haien nazionalitatea, jatorria edo bizilekua. Lanek gutxienez 40 eta gehienez 80 orrialde izango dute, eta Times New Roman 12 letra motan tarte bikotiztean idatzita egongo dira. Informazio osoa <https://liberoamerica.com/idazle-gazteen-literatur-lanak-argitaratzeko-deialdia/web/orrian>.

OPATUTAKOAK

Harzabal dermioan 6 giltz opatu dira: Mosketoi gris batean bilduta. Etxarri Aranatzko udaltxean daude.

iragarki@guaixe.es

www.iragarkilaburak.es

JAIOTZAK

- **Jare Santesteban Garcia**, ibeltzaren 18an Irurtzunen
- **Inder Arrizabalaga Garziandia**, ibeltzaren 18an Arbizun
- **Carla Percas Lizarraga**, ibeltzaren 19an Altsasun
- **Luka Cristobal Triviño**, ibeltzaren 20an Altsasun

EZKONTZAK

- **Amaia Garcia Mendioroz eta Aritz Satrustegi Ganboa**, ibeltzaren 23an Arruazun
- **Andoni Agirre Unzila eta Igone Razkin Lazkoz**, ibeltzaren 25ean Lakuntzan


HERIOTZAK

- **Maria Angeles Bravo Azagra**, ibeltzaren 22an Olaztin
- **Miguel Andres Galarza Galarza**, ibeltzaren 22an Urdiainen
- **Esther Lorea Perez**, ibeltzaren 23an Olaztin
- **Maritxu Gabirondo Lezea**, ibeltzaren 23an Iturmendin


INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN
DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 29




Larunbata, 30



Igandea, 31



Astelehena, 1



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskelak@guaixe.es

- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 €
prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache



www.tanatoriosirache.es

Herrira oholtza gainera itzultzea

Itsaso Arenzana etxarriarrak parte hartzen duen 'Viejos mundos nuevos' antzezlanaren izenak gaur, urtarrilak 29, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. Ados Teatroren Giza Eskubideak Eszenara programaren barruko lana da

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Duela urte bat Itsaso Arenzana etxarriarra lehenengo aldiz ohol-tzara igo zen. *Viejos mundos nuevos* antzezlanaren mustu zuen Antsoainen. "Oso esperientzia polita izan zen, inoiz horrelakorik ez nuen egin, eta pertsona gisa hazten laguntzen zaitu". Estreinaldiaren ondoren, aldiz, koronabirusagatik mundua eten zen, eta antzerkia alde batera utzi behar izan zuten: "Egia esan, urte gogorra izan da, antzerkian parte hartzen dugun guztiek min handia izan dugu". Azaroan Zizur Nagusian ohol-tzara itzuli ziren eta gaur, urtarrilak 29, 19:00etan, Arenzana etxean ariko da; *Viejos mundos nuevos* antzezlanaren Etxarri Aranazko kultur etxean izanen da. Oraindik sarrera gutxi batzuk gelditzen direla gogoratu du Arenzanak.

Viejos mundos nuevos antzezlanaren Ados teatro konpainiak sortutako Giza Eskubideak Eszenara programaren barruan egindako lan bat da. Programa honetan antzerki konpainiako profesionalak eta gizarte bazterkeria sufritzen duten kolektiboak batera elkarrekin aritzen dira, eta berdintasunean antzeztan bat hutsetik sortzen dute. Iazko edizioan Gizakia Helburu eta Mentalia elkarteetako erabiltzaileekin sortu zuten *Viejos mundos nuevos*. Lanak edozein pertsonak aldatzeko duen eskubideari buruz hitz egiten du, eta bi errealitate aurrez aurre jartzen ditu.

Bigarren aukerak

Arenzanak alkoholarekiko mendekotasuna zuen, eta bederatzi hilabetez Gizakia Helburu egon zen. Terapeutak Giza Eskubideak Eszenara programan parte hartzeraino animatu zuten: "Proposatzen dudana guztia lortzeko gai naizela konturatzen balio zuela esan zidan". Eta antzezlanak "bizitza aldatu" zion. "Nire beldurrei aurre egiteko aukera oso ona iruditzen zitzaidalako aurrera egin



'Viejos mundos nuevos' antzezlanaren une bat. ARTXIBOA

nuen". Proiektuan parte hartzeak "bigarren aukerak badirela" konturatzen lagundu zion Arenzanari, baita berari buruz jendeak esaten edo pentsatzen dituenari beldurra kentzeko lagundu dio ere. "Nire arazoa kontatzetik indartuta ateratzea zaila da hasieran, baina gero sari handia du. Bizitza aldatu suposatzen du".

Mustutzearen ondoren, eta hainbat data aurreikusita zizutenean, antzezlanaren bertan behar izan zuten. Etxarri Aranazko, esaterako, 2020ko maiatzaren egin behar zuten, baina egoera dela eta atzeratu behar izan zuten. Aurreko urteko otsailean mustu zuten, eta Iruñerrian pare bat

emanaldi egin zituzten. Hilabetez geldirik egon ondoren, azaroan ohol-tzara igo ziren berriro, eta orain antzezlanari amaiera emanen diote. Gertatutakoaren guztia-aren ondoren entsegetara eta eszenatokira itzultzea "oso polita" izan dela esan du etxarriarrak.

Etxean

Arenzana "oso pozik" dago Etxarri Aranazko antzezteagatik, eta antzezlanaren egin aurretik ere eskerrak ematen ditu. "Ez nuen pentsa horrelako gauza bat egingo nuenik, baina zortea izan da". Barre artean oso urduri dagoela aitortu du, "orain Iruñean bizi naiz, baina herrira horrela itzul-

itzea zoragarria da". Emanaldi honekin jendeak "bigarren aukerak bizitzan onak direla" ulertaraztea nahi du. "Ahalegin txiki batekin edozer eta edozein mendekotasun motatik atera daitekeela".

Viejos mundos nuevos antzezlanaren hutsetik sortu zuten Ados teatroa eta Gizakia Helburu eta Mentaliako kideek. "Bakoitza bere mendekotasun arazoan oinarritu da". Bizkarrean daramatena kontatzen dute: "Gauza onak eta txarrak izan daitezke". Hamabost pertsonen parte hartzen dute, Gizakia Helburu proiektuko sei pertsona, adimen urritasuna duten hainbat pertsona eta Jose Marin Asin eta Patxi Perez antzerkigile profesionalak. Bi hilabetez lantzen aritu ziren. "Proiektu honetan parte hartzea oso polita izan da". Beste pertso-

na batzuen istorioak ezagutzeko aukera izan du Arenzanak, "eta askotan identifikatuta sentitu naiz. Pentsatzen duzu: ez naiz hau guztia gertatzen zaion bakarra. Ez naiz zomorro arraro bat". Antzerkiaren bidez beldurak "apurtu" ditu eta bere burua gehiago ezagutu du. "Ez nituen sentimenduez ohartzeko lagundu dit". "Denak gara protagonistak". Arenzanaren pertsonaia bere buruan, eta bizitzan bizi izan dituen egoeretan oinarrituta dago. "Guztiaren hasieran oso gogorra eta polita izan zen, aldi berean". Bere bizitza "ezerezetik" kontatzen ari da, eta horrek "betidanik ezagutu nauten pertsonekin gehiago" konektatzeko aukera eman dio. "Ulertzen duen jendea eta ados ez dagoen jendea egongo da", baina errespetagarria dela esan du.



BAZTERRETIK
RICARDO ARETA
URRESTARATZU

Lanbideak

Asko dakigu musikaren izarren xelebrekeriei, luxuei eta maniei buruz, baina glamour horren guztia-aren aurreko bizitzari buruz ezer gutxi hitz egiten da. Bere gelan eta ispiluaren aurrean bakarrik, jarraitzailez betetako estadio bateko irudizko agertokian lehen urratsak zer izango ziren entseatzeko ari zirenean.

Elvis Presley izan daiteke kasurik ezagunena. Erregea izan aurretik, Crown Electric konpainiako kamioi bat gidatzen zuen errepidean. Bere gitarraz lagunduta, bidaia horietako bat baliatu zuen bere urtebetetze egunean amari oparitzeko disko bat grabatzeko. Sam Phillips, estudioko burua, txundituta geratu zen kamioilariarekin, eta hori izan zen tronuraino eramanez. **Ozzy Osbourne**ek, bere Black Sabbath bandarekin batera Heavy Metalaren asmatzaileak izan zirela uste dena, animaliak zatikatzen lan egin zuen Birminghameko hiltzgi batean, Judas Priest taldearen jaioterrian, generoaren barruan beste erreferentzia historiko bat dena.

Rod Stewartek Londoneko klubetan egiten zituen entseguak eta emanaldiak North Finchley auzoan egiten zuen lurperatzaile lanarekin uztartzen zituen. Talde batean egin zuen lehen lana harmonizista gisa izan bazen ere, rock ingeleseko abeslari karismatikoenetako bat izan zen. **Patti Smith** punkaren amabitxiak kalitatezko testak eta konponketak egiten zituen jostailu fabrika batean. Urte batzuk geroago, Bruce Springsteenekin batera, *Because the night* rockaren historiako ereserkirik handienetako bat osatu zuen. **Kurt Cobain**ek, grungearen ikonoak, bedel gisa lan egin zuen institutu batean. Handik gutxira, Nirvanarekin bere karreraren gorenean zegoenean, eta X belaunaldiaren ahotsa bezala ezagutua izan zenean, 27koen klubeko kide izatera pasa zen. **Mike Jagger**rek, droga eta rock-and-rollaren filosofia mugaraino eramanez zuen birraitona bitxiak, 70 urte bete ondoren festatik irteteari utzi ziola onartzen duenak, bere lehen urrats profesionalak eman zituen Londongo Bexley Ospitaleko atezain bezala. Bien bitartean, **Keith Richards** bere ikaskide ohiak teniseko pista batean egiten zuen lan asteburuetan. Beharbada biak Datfordeko geltokian zeuden trenaren zain, lanera joateko, 1961eko urriaren 7an Rolling Stones taldea osatzea erabaki zutenean.



Joseba San Sebastian, Modus Operandi taldeko musikaria. UTZITAKOA

"Kontzertuetan jendearekin konektatzen dugu"

JOSEBA SAN SEBASTIAN MODUS OPERANDI

Modus Operandi taldeak 'Dantza gaitezen hil arte' bigarren diskoa kaleratu du. Larunbatean, hilaren 30ean, 19:00etan, kontzertua eskainiko du Lakuntzako kultur etxean

Eneida C. M. eta Erkuden R. B. LAKUNTZA Lesakan jaioa, Lakuntzara "maitasunagatik" etorri zen Joseba San Sebastian musikaria. Musikaria, autobus gidaria eta, orain, tabernaria ere bere bikotekidearekin batera Lakuntzako Tximonena jatetxea hartu dutelako. Aitortu duenez, dagoeneko ez daki zein den bere lehenengo eta bigarren etxea: "Ez naiz lesakarra ez lakuntzarra ere. Tarteko zerbait". Orain, musika proiektu berri batean murgildu da: Modus Operandi taldeko baxu jolea da.

Bihar, larunbata, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean kontzertua eskainiko dute.

Musika zaletasun bat baino gehiago da?

Garai batean, duela 25 urte inguru, bizitzeko adina ematen

"SKA, PUNK, ROCK AMERIKARRA, DANTZAGARRIAGOA... NAHASKETA POLITA DAGO"

zuen. Erromerierekin, batarekin eta bestearekin... baina gero haurrak izan genituenean erabaki nuen beste lan bat hartzea, eta musika pixka bat alde batera utzi nuen eta autobuseko gidari lanean sartu nintzen. Orain, Tximonena tabernan ere sartu gara. Bagenekien egoera oso zaila izango zela.

Baina musika ez duzu inoiz utzi, eta proiektu berri batean zaude: Modus Operandi. Nola sortu zitzaizun aukera? Pixka bat errebotean etorri zitzaidan. *Dantza gaitezen hil arte*

bigarren diskoa grabatzeko sartu nintzen. Lehen Txikik jotzen zuen baxua, Izarorekin aritzen den baxu jolea, eta taldea utzi zuen. Orduan, Josu Erbitiren bidez parte hartzeko aukera eman zidaten. Eribitirekin Enemigos Intimosen eta beste lan batzuk ere egin ditugu; Hatortxuko azken bolaa streaming bidez izan zena ere elkarrekin grabatu genuen. Lagun onak gara. Enrikok taldea utzi zuen eta bera sartu zen lehenengo. Hemen horrela funtzionatzen du; ezagun batek uzten du eta beste ezagun bat libre badago sartzen da. Beraz, Josuren bidez sartu nintzen taldean. Frogatxo batzuk egin nituen eta oso gustura. Diskoa grabatu genuen eta etxean ibili ginen. Emailtza oso txukuna da. Abesti oso politak daude.

Diskoaren ondoren, kontzertuak egiten hasi zarete, eta bertan ere parte hartzen duzu, ezta?

Bigarren diskoa grabatzen hasi ginetik, bai. Udan hasi ginen entseatzen eta abestiei forma ematen, iraillean grabatu genuen eta orain ezin dugu jo. Oso zaila da kontzertu bat egitea. Eta oraintxe horretan ari gara. Aurrekoan Bilboko Santana 27 aretoan kontzertua eskaini genuen eta larunbatean Lakuntzan eskeiniko dugu. Orain hasiko gara. Ea aukera dugun areto batzuetan kontzertuak emateko. Nik uste uda honi begira zerbait egin beharko dutela. Festak ez dakit ospatuko diren, edo zer formatutan izango diren. Baina jarduerak eta horrelakoak egin beharko dituzte. Kontzertuen mundu hau gelditu da, eta lagun pila bat daude lanik gabe eta oso egoera txarrean.

Nola definituko zenuke Modus Operandiren musika?

İñaki Betagarrik indar handia dauka taldean. Abeslaria da eta berak ematen dio izaera handia. Berak egiten ditu normalean melodiak, eta taldea gidatzen du. Ska eta rock zalea da. Pila bat gustatzen zaio. Baita reggae ere. Nik uste Erbitik eta biok rock aldera eraman dugula, eta beste aldaera bat eman diogu. Dantzatzeko abesti batzuk ere badaude diskoan. Makina batzuk eta sinte prozesatu batzuk

"ORAINGO KONTZERTUETAN, ASKOTAN, KIMIKA EDO HARREMANA INDARTSUAGOA DA"

sartu ditugu. Bi zati bezala ditu: bata punka eta ska lantzen ditue-na eta bestea dantzagarriagoa. Entseguetan sartu ginen, ea zer ateratzen den pentsatuz hasi eta horrela sortu dugu. Naturala izan da.

Nolakoak dira gaur egungo kontzertuak? Nola bizi izan zenuen Bilbokoa?

Oso arraroa izan zen Santanara sartzea, Santana oso handia da, eta aulkiak ikustea. 80 bat zeuden eta oso arraro ikusten zen. Baina gero kontzertuan sartzen zarenean... Jendea oso gustura egon zen entzuten. Bukaerarako, beraien lekuan baina dantzan hasi ziren. Giroa polita zen. Kimika hori eman zen. Musika gure irtenbidea da. Bestela, beti albiste txarrak entzuten ari gara, eta behintzat unetxo hori musika entzuten egoteko izatea. Giroa egon zen. Jendea oso gertu sentitu genuen. Lesakan ere Ciento volando taldearekin kontzertua eskaini nuen eta jende guztia isilik egon zen. Arreta %100koa da. Arraroa da, baina ohitu behar gara eserita edo geldi egotera. Askotan kimika edo harremana indartsuagoa da.

Exijitzen zaizuen maila ere handiagoa da, ezta?

Gu beti saiatzen gara dena ematen. Baina bai kontzentrazioa handiagoa da. Kontzertua ikusten daude, ezin da edan, ezin da hitz egin, ezin zara gertu egon... Baina hori da dastatzen duguna ere. Jotzen dugunean jendearen arreta erakarri nahi dugu. Konektatu nahi dugu. Nik uste musika horretarako dela. Jendea nonbaitera eramateko. Entzuleari zerbait erran behar diogu. Bestela, zertarako ari zara musika jotzen? Gaur egun kultur emanaldiak bultzatu behar dira jendeak eskatzen dituelako. Ahalegin handia egin behar da kontzertuetara joateko, eta bultzada hori eskertzen da. Udalak ere lan handia egiten ari dira. Kultura beharrezkoa da; gure nortasunari buruz asko esaten du. Gu nolakoak garen esaten du; eta instituzioetatik ez dute asko laguntzen.

Bihar kontzertua egingen duzue Lakuntzako kultur etxean. Zer aurre-ratu dezakezu?

Jendeak interesa erakutsi du. Ea zer moduz doan. Gu saiatuko gara kontzertu polita eskaintzen. Ordu eta laurden edo ordu eta erdiko show polita izanen da. Gozatzekoa. Txukuna eta polita den zerbait egiten saiatuko gara.



Ainhoa Ramirez de Alda Azurmendi altsasuarra, Lehen Hezkuntzako irakaslea.

"Helburua materiala jendeari iristea da"

Ainhoa Ramirez de Alda Azurmendi Lehen Hezkuntzako irakaslea da. Sare sozial batean Ainhoaren Txokoa deitutako kontua sortu du, berak egindako metodologia aktiboetan ikas materiala elkarbanatzeko

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zer da ainh.oaren txokoa?

Instagramen sortutako profil bat da, eta horren helburua da nik egindako materialak edo

euskaratutako materiala beste irakasleekin, familiekin edo nahi duenarekin partekatzea.

2 Nolako materiala sortzen duzu?

Behar dudaren arabera

sortzen dut; egunerokotasunean sortzen diren gauzak edo hezkuntzarekin lotutako beste profiletan agertzen diren argitalpenak ikusita, euskaratzen ditut nire gelan erabiltzeko. Material

manipulagarriarekin autoestimua igotzen dela, blokeoak ekiditen direla, jolasten dela eta nire ikasleek gehiago ikas dezaketela sinisten dut.

3 Zure materiala sortzeko beharra ikusi zenuen?

Orain arte horrela egin dut. Lanari hasi nintzenetik sortu dut nire materiala eta ikusi nuen jende askok egiten zuela. Jende hori guztia ari ginen materiala sortzen, baina ez genuen partekatzen. Nik sortutakoa beste batek sortu ahal du, dena asmatuta dago eta, beraz, pentsatu nuen partekatzen badut beste bati lana kentzen diodala; nire materiala hobetu dezake eta feedback-a sor daiteke ere.

4 Nondik hartzen dituzu ideiak?

Profil interesgarri asko daude. Mundu honetan aspaldi sartu zen jendea badago. Material hori gehien bat gaztelaniaz edo ingelesez eginga dago. Profil horietatik ideiak hartuta edo materiala, bera, hartutako ere. Euskaraz falta zela sumatu nuen eta hortik abiatuta euskaratu nituen, horrela hemen ere erabil daiteke. Adibidez, Objetivo 2022 kontuan ulermen testuak jartzen ditu; Maestra_saritea Madrileko irakasle bat da, eta Euskal Herrian ere irakasle influencerrak daude. Oso profil interesgarriak daude.

5 Eta nolako da material hori?

Ezagutzen dugun materiala da. *Dobble* karta jolasa izan daiteke, *Kaboom!* da beste jolas oso interesgarri bat, profilean azalpen txiki bat dago.... Ikasten ari garen hiztegia barneratzeko erabiltzen dut. Arreta jolasak dira eta matematika gaitasunarekin ere lotuta daude, zenbakuntza, geometria eta abar. Horrek ez du esan nahi gero fitxak eta abar egiten ez dituztenik. Dena ez da jolasa.

6 Pedagogia mugimendu berri bat zaretela esan daiteke?

Ez dut uste mugimendutzat har daitekeenik. Baina metodologia aktiboetan parte bat gara.

7 Nola hasi zinen?

Betiko irakaskuntza ikasi eta gero eta behin hezkuntza mundu honetan sartuta nengoela hutsuneak zeudela ikusi

nuen. Liburu batekin edo fitxa batekin gauza asko ez zirela lortzen ikusi nuen, batez ere zailtasunak dituzte irakasleekin eta beste erritmo bat duten irakasleekin. Orduan, trebatzen hasi nintzen. Montessori ikastaro bat egin nuen, material manipulagarri asko erabiltzen dela... Edizio lanetarako ere ikastaro bat egin dut, materialak programa batekin eginak daudelako.

8 Zenbat denbora eskaintzen diozu?

Atzean lan asko dago. Egunaren araberakoa da. Lan honek sormenarekin lotura handia dauka, eta sormena ez dator egunero. Zerbait bururatzen zaidanean edo nire gelan zerbait suertatzen denean, apuntatzen saiatzen naiz, gero sortu ahal izateko. Egia da sormen handiko pertsona bat naizela, eta ez zait gehiegi kostatzen.

9 Zein izango da hurrengo materiala?

Kaboom jolasak arrakasta handia du irakasleen artean, baita nire profilean ere. Gabonetarako egin nuen Gabonetako hiztegiarekin, eta orain ekintzekin, aditzen, beste bat prestatzen ari naiz. Eskakizun handia daukate ulermen testuek ere. Objetivo 2022 kontuak gaztelaniaz sortzen ditu eta nik euskaratzen ditut. Hasi naiz; ez dakit noiz bukatuko dudana, baina hurrengoak horiek dira.

10 Perspektibarik?

Egia esan, bat-batean bururatutako ideia bat izan zen, eta elkarbanatzeko helburuarekin sortu nuen. Ez nekien besteentzako interesgarria izango zen edo ez. Baina nik espero nituen baina jarraitzaile gehiago ditut, eta oso pozik nago. Nire helburua ez da jarraitzaileak lortzea, materiala jende gehienak izatea baizik.

11 Irakasleak ez ezik, beste publiko batendako ere baliagarria da, ezta?

Bai. Hezkuntza mundutik kanpo askok eskatzen didate eta eskertzen didate. Askok gustatuko litzaidake beste norbaitek erabiliko balu, eta beste erabilerak bat emango baliote, nirekin partekatzea.



DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436
info@gkomunikazioa.eus
Foru plaza, 23-1. Altsasu

Ba al zenekien
Guaixe Fundazioaren
bazkide izanda,
gure zerbitzueta
deskontua
izanen duzula?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe